



borreroak  
baditu  
milaka  
aurpegi

Txema Arinas

BOOKTEGI





# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

TXEMA ARINAS

# Borreroak baditu milaka aurpegi

|

Arratsaldeko zazpiak eta laurden inguru, banabil ezin sinesturik, eta agian apurtxo bat atsekabeturik ere, beharko, nahiz eta kale gorrian ia ordubete zain egon, oraindik hemen bainauzue tinko-tinko, Kikeren zorioneko bezeroari ataurre horren goialdeko etxebizitza bat erakustearren, dagoeneko etxean eta batez ere bainuontziko ur epelean murgildurik goxogoxo egon beharrean, Alde Zaharreko kale-kantoi ilun eta lohi batean dar-dar eta asper-asper zeharo eginda. Baina, hau al da bene-benetan txiki-txikitandik ezagun dudan nire hiriko Alde Zaharra? Aitortu beharrean nago, behin baino gehiagotan eta batez ere kartzelatik irten eta gero arrotz samar sentitzen naizela, gehienbat ondoko kaleetan denda arruntak zein lehen begiratu aspertuan ondo asko bereizten ez diren bestelako establezimendu batzuk ireki berri dituzten Senegal, magrebiar edo hispanoamerikar jatorriko jabe eta bezero etorkinetako bat nire aldamenetik pasatu eta bere aurpegia ez antzemandakoan. Alabaina, nire irribarreak eskeintzen dion abegi zabal eta guztiz profesionalean erreperatzeke paso egiten duenean begiratu txunditu bat edota iseka barre bat bizkar atzean uzten dit. Galduta nago, aspertuta eta agian nahiko hozminduta ere, baina ezin dut alde egin, agindu egin diot nire lankide izorranteari.

—Zor didak. —Zer dela eta? —Jabearen iloba haizelako.

Ezin ezetz esan guztiz konbentziturik utzi ninduen argudio horren erruz. Hortaz, eta betidanik lanorduz kanpoko bisitaldiak bizi gaitzetsi edo gorrotatu arren, langileok inola ere onartu behar ez dugun gehiegikeria bat den aldetik, horra hor orain dela gutxi arte izan nintzen borrokalari suharraren azkeneko zantzueta murrizena, ordubete baino gehiago kale ainube honetan zeharo gogait eginda eta dardaraz zein esperoan naukan bezero ezezagun eta lotsagabekoari esker, normalean odolestutzen hasi aurretik jasan dezakedana baino geroago. (Ez nuen inola ere bueltatu behar erabat arrotz, mingor, zakar, suertatu egin zaidan sorterrira) Nolabait ere, zorioneko bezero hau lehenbailehen, edo behintzat nire onetik atera baino lehenago, ez baldin badator behingoz, badakit noiz edo noiz nire ohiko aiko-maikoetan hasiko naizela, hau da, nire burua gutxienez edozein lelokeriaz beteta izateko besterik ezean, hau baita aspaldi honetan egiten saiatzen naizen jardun bakarra: kasketea berotu. Zorionez egun ikaragarri ederra izan da aspaldiko partez, apiril erdiko uda harrigarri xume bat, guztiz eguzkitsua eta aldi berean ere epela, goxoa, nik zinez ikaragarri gustuko ditudanak hain zuzen ere, eta oso kontutan hartzeko datu bat hiri honetako udaberria nolako definizio hutsala den behin jakinda ere. Bestalde, oraintxe bertan nahiago nuke nire urtegi ondoko txaletean zain dudan sofán etzanda eta telebista aurrean bapo-bapo afaltzen egon, Alde Zaharreko, hau da, gaur egun Urraitz edo erdaraz “La Almendra” deritzoten auzo ikaragarri hotz, ilunbetsu eta agian gaur egun arriskutsu ere honetan baino.

—Ez hasi hain azkar aineka, ikusiko duk zer-nolako neska puska.

Nik uste, ala hori da behintzat espero dudana, nire lankide ez hain maiteak ni poztu eta animatzearren bota egin zidala, bera bezain gonazalea edo lizunkoia naizela sinesturik ere, bere saltzaile elokuentziaz bezero izan ohi dituen neska koitaduak di-da eta ia erreskadan liluratzen dituen, edo bere berbajarioaz lur jota utzi ohi dituelakoan behenik behin, agian ere adierazi nahian nik antzeko zerbait egiteko parada izango dudala oraingoz behintzat kale gorrian zain eta dar-dar nauen bezero dagoeneko malapartatuarekin.

—Lan hau izugarri aproposa duk mota guztietako neskak ezagutzeko, eta egin kontu, bakarrik baldin badatoz ez ezak aukera galdu.

Kikeren ustezko ateraldi lizun iguingarriak, bulegoan barra-barra bere emakumeekiko ezintasuna agerian etengabe utziz, hainbeste gustatzen zaizkion lizunkeria ezinezko horiek egiteko benetako parada balu, dagoeneko kartzelapean legoke. Zorionez gure Kike buruberoak ahoa zakila baino beroago du. Egia esan, sexu kontuetan erabiltzen duen organo bakarra, eta ez hankartean hain zuzen ere. Kike gaixoak, berotasunetik gaixotasunera hain tarte txikia dagoela medio, ez dit inolako penarik ematen, aitzitik, Kikek biziro gogait egiten nau, ez besterik. Tamalez, ez da ere bere meritu hutsa, aspaldiko partez inguratzen ninduten gizakume gehienek gogait egin ohi naute, nire ustez oso supituan itzuli naizelako ia zeharo ahaztua nuen bizimodu zibilera edo.

—Buenas tardes, y perdóname si llego tarde, acabo de salir del trabajo.

Lehenengo eta behin, ezustean eta estreinako Kikerekin bat etorri beharrak eragin didan ondoeza. Bai neska puska, batez ere gazte, dotore eta fina, nola ez onartu bistan dagoena, nola ez onartu ere ez nagoela ohituta, ez behintzat barkaka eta totelka hasi baino lehen, oraingoa datorkidana bezalako neska pospolin batekin tratatzera, hau da, hain gaztea, dotorea, fina eta gainera itxuraz edo zolia ere ematen duen emakumezko batekin. Hori izan da, duda izpirik gabe, nire aurreneko zirrara, berriro diot, nire moduko astapotro baten ohiturari jarraituz itxuran bakar-bakarrik erreparatuta, hau da, eta takoi luzeeen oinaze sekularra alde batera lagata, hain gaztea izanda eta ezin nabariago, batez ere bere amari agian propioago, txukunago, egokituko zitzaion orrazkeran zein bere adineko neska bati berez oso faboragarria ez zaion soineko urdinkara, molde txit klasikoa eta seguruenik ere oso garesti eta etiketadun horretan -maiz soinekoek emakumezko askori mesede bainoago kalte egiten diote-eta, hau da, adinez oraindik ez dagokien derrigorrezko zein gezurrezko dotoretasun soil eta serio bat adierazi nahian-, oso goiz andere, andere eman nahi duena, baliteke ere agurtzerakoan erabili duen tonu behar bezain gizalegezko, atsegin edo adiskidegarriarengatik.

—¿Subimos?

Lipar batez ez nekien noraino, gogoeta lizunpean nengoen-eta, Kikeren parean. Berehala, ostera, konturatu naiz neska zain eta urduri nuela. Ireki dut atea ezin aztoratuagorik. Goazen ba, guztiz berria zaidan zoko ilun batera sartzen gara. Alde zaharreko etxe gehienak oso antzekoak dira, ikustekoak bederen, otutzen zaidan lehenengo gauza hutsala, hau da, kontura ezin egoki eta ergelago datozen topikoen bila, alde zaharreko etxe zaharkitu eta beharbada ere hondatuei buruz dakidan apurra, hots, Kikek berak hona etorri baino lehenago hainbat arinen irakatsitakoa, eta doi-doi itsumustuan gogoratuz. Hona hemen topo egiten dudan bigarrenengo topikoa edo ni bezalako eta ustezko bakarrik ere etxe saltzaile saiatu batek ezin hobeto ezagutu behar zuen estakurua. Ez dago igogailurik, bagoaz laugarren solairuraino eta tarteka ere oso fidagarriak ez diren eskailera mehar eta laiotz baten zurmailetatik igotzekotan gaude. Nire lanaren nondik norakoei eutsiz gezurretan hasteko garaia heldu zait, hau da, halako eskailera deseroso edota arriskutsu baten agerikoaren ezeztapena.

—Y esto no es lo peor de este tipo de casas.

Orduan, bat-bateko senak edo eraginda, nire lankide Kikeren gomendio edota aholkuetatik ahalik eta gehien bereizten saiatzen naiz, baliteke ere bere berba lizunei darien kiratsa uxatu nahian edo nire begi guztiz indiskretoak neskaren alderdirik eme-emetatik saihestearren.

—Contentos si no nos despeñamos antes de llegar al último piso.

Ez da oparitzen didan lehenengo irribarrea, baina bai, agian, gizalegezkoa soil-soilik ez dena, hau da, nire ateraldi inozoak eragindakoak. Orduan bai, alde zaharraren goialdean dagoen Correria kaleko teilatupe bateraino laguntzen ninduen eta behin berriro bere adineko batentzat behintzat soineko urdinkara, txit klasikoa eta garestia janzten duen neskaren aurpegi politari lehendabizikoz so egiten ausartzen naiz, oraingoz soslaiz bakarrik baldin bada ere, zeharo herabe, agian nik bakarrik gordetzen dudan gizalegeak behartuta, agian ere Kike madarikatuak sekula egingo ez zukeen bezala.

(Ezingo dut inoiz ahaztu bere sagutxo sudurra)

Soineko urdinkara beti gogoan izanda, edonor bezala ere nire aurreiritzien menpeko, berehala begitantzen zait lan kontuetan denbora alperrik galtzen ari naizela eskuan dudan giltzari dagokion sarrailaz bestaldean estu-estu zabaltzen zaigun etxebizitza erakusterakoan.

—Beharbada ez da gogoan duzuna.

Sabaia Portugaleko eliza baten barnean egokiago legokeen urre kolore batez margotua, hormak zeru-urdinez eta zoruan koba barruraino zihoan moketa gorri bat; duda izpirik gabe Kikek adierazi eta bere moduko edozein zakilberok gutiziatuko zuen txortatoki edo pikadero bikaina.

Baina, jakina, ez diot ezer esan, badira hilabete gutxi lan honetan nagoela eta oraindio oso kontu handiz ibili beharrean nago, gaurdaino nigandik espero zen behar beste etxe saldu edo alokatu arren, hau da, hilean bizpahiru gutxienez —niretzat soberan, eta batez ere jabearen iloba naizen aldetik—, nire bizitzaren beste zenbait arlotan hain ohiko eta sarri izan ditudan hanka-sartzeak beste behin ez egite aldera.

—Me parece demasiado estrecho y la pintura un poco exagerada, pero bueno....

Nik uste dut inoiz, edo behintzat lan honetan ari naizenez geroztik, ikusi dudan pisurik mehar eta zatarrena dela. Eta horma margotuen nabarmenkeriaz zer esanik ez. Baina, tira, bere gustukoa baldin bada, bezeroaren gustukoarekiko oro lege baita kursiloan ondo asko irakatsi bezala, ez du inporta egiaren laurdena baino esateak, hau da, iruzur egiteak, pisua egiatan ez dena sinestaraztea, hain meharra, zatarra eta batez ere zaharkitua ez dela etengabe baieztatzea. Okerrena, dagoeneko erdi konbentziturik sumatzen dudala, edo agian ere zerbait okerrago, behartuta, edozein pisu hainbat arinen onartzeko premia, egundoko hanka-sartze bat egitekotan.

—El anterior inquilino lo pintó de arriba abajo para hacerlo más habitable.

Ezin ageriagoa nola edo hala adierazten saiatzen naizena, aurrean dudan bezeroa, hots, aspalditik ikusi dudan neskarik pertxentena, atseginena, sotilena, xaloena —irribarretxo xume batez nahikoa izan du hau eta orain kontura ez datorren beste hainbeste gogoan har nezan— eta beharbada ere babesgabekoena nolabait ohartarazita egitear dagoen erruaz.

—La mayoría de estos pisos tienen graves problemas estructurales, vamos, que por mucho que los maquillen por fuera, por dentro se están cayendo.

Berak irribarre egin du. Hasia naiz atsekabetzen. Honaino iritsita nola ez aitortu neure buruari sarri askotan esan ohi diodana, nire buruari harrika egiten diodala halabeharrez, badagoela motibo bat bezeroa nagusiarengana joan dadin kexatzeko asmoz, saldu beharrean uxatu gura ninduela ematen zuen, horra hor berriro neure etorkizuna kolokan, ezin diet osabak egiten dizkidan mesede guztiei muzin egin, berak ez ninduen inondik ere onartu behar bere inmobiliarian lan egiteko, egia esan, bazituen alde zurretik gura eta behar adina saltzaile, eta guzti-guztiak Kike kaskailua bezain azkarrak eta batez ere emankorrak.

—Por otra parte, se trata de un tipo de piso ideal para jóvenes profesionales y...

Neska gero eta irribarretsua goa.



Eta? Ezkongeeentzat ere ezin aproposagoa? Eta niri zer axola? Arren, ezin dut sinistu hain dorpea naizenik, eta hurrengo zer? Etorriko al zara nirekin afaltzera? Txortan egingo dugu oraintxe bertan? Momentuz totala ari naiz. Neskak seguru asko pentsatuko du ez nagoela nire onean, gizajo hutsa naizela.

—La pintura le da un toque muy original, puede que muy alegre, acaso demasiado, pero a mí, la verdad, tanto color como que me marea.

Leiho bakarria kale ainerak begira, pasilloa inora eroaten ez duen hodi luze, ilun eta estu baten modura, egongelara sartzerakoan ozta-ozta gizakume bi eta beti elkar oztopatuz, guztiz oso garbi antzematen ez den moketa baten gainetik zapata zolak ia pega-pega eginez, eta bertatik irten barik ere sukaldeaz topo egiten dugu txoko batean erdi ostendurik. Zelan ez esan, ustekabean izanda ere, eta beti erdi txantxetan, tarteka-marteka bakarrik egiten ditudanak urduri eta ahomotel nagoela, kobazulo hau alokatu gura duena pozarren egon behar duela logela nagusi eta bakarrean etzanda doi-doi kabitu ezkerero.

—... demasiado oscuro y estrecho.

Eta ezin zuzenago dagoela erantzuten diot. Noski baietz, azkeneko maizterrak oso gustu eskasa ei zuen, bai koloreei dagokienez, bai utzi izan dituen apaingarri bakanetan erreparatzekotan, begi bistan dago —eta honako hau nire bezeroak esana— azkeneko maizterrak ere diruaz malabarismoak egin behar zituela. Bestela, ikusi besterik ez dugu egin behar, honezkero guztiz begikoa begitantzen zaidan neska eder honek txino batean hamaika aldiz topatzen uste izan duen plastikozko herensuge zein loto-loreez betetako pitxerra edo ia etxe guztietan eskegita omen dagoen Gernikaren ditzosozko erreprodukzioa.

—Accedí a ver el piso por el precio; pero, aún así, no me veo viviendo en él.

Ez dago eztabaidatzekorik, bere aurpegian ezin argiago nabarmentzen zaio bere erabateko ezadostasuna, ezin du bere burua etxe honetan ikusi txikiegia, zikinegia eta behar bada ere bitxiegia baita bera bezalako emakume fin eta pospolin batentzat, eta gutxi balitz bezala ikaragarri garestia ere hiriguneko beste antzerako pisu batzuen aldean.

Berarekin bat nator berehala, ezinbestean, hiri honetako alokairuen prezio gehienak neurritz kanpokoak dira, abusu hutsa, legezkatutako lapurreta. Ez dit batere inporta niregan zorionez dagoen onestasan aztarna erakusteak, sasi guztien azpitik eta hodei guztien gainetik ondradu izaten jarraitu nahi duen gizona aldarrikatzeak. Hori dela eta, nik ere pisu kaskar honetan topatzen ditudan faltak eta akatsak zenbatu eta zehazteari ekiten diot. Nik ere ezin dut bera bezalako neskato bat hemen sartuta irudikatu, batez ere alde zurretik jakinda azkeneko maizterra pikadero modura erabiltzen zuela, bere behin-behineko amodio ustelak honaino erdi arrastaka eta ezinbesteko alkohol kopak zurrupatu ondoren erakartzeko asmotan, Kikek behin



baino gehiagotan kontatu bezala maizterraren laguna omen baitzen, egia esan amaigabeko irribarretxo batez eta derrigorrezko keinu lizunaz ere kontatu egin zidan, bere lagun zakilberoetako bat, Txapeldun goitizena jarri omen ziotena, hain zuzen ere. Bestalde, eta neskak inolako lotsarik gabe bere diru estualdia aitortu didala medio, nik uste dut egon behar direla halabeharrez beste pisu zabal eta merkeago batzuk, baita Alde Zaharrean bertan ere. Dei bakarra egin behar dut, oraingoan Kike da mesede bat zor didana, bera da auzoko etxebizitza guztiak ondo baino hobeto ezagutzen dituenena, eta berak ere esango dit, noski, zein den auzo honetan ezinbestez omen dagoen pagotxa.

—Hobe dugu hemendik lehenbailehen ospa egitea.

## II

Orain dela bi ordu lehenagoko bero sapairen arrastorik ez, gure benetako, hots, betiko apirilak berriro gogor jotzen gaitu hiri honetan jaun eta jabe den hotz sakonaren indarraz, gauzatzekotan dagoen gauaren ilunaz bailatzen dela badirudi kalean eta ordu txarrean galdutako bi gizajoren aurka gogoz, ezusteko erneguz hobeto esanda, jarduteko asmoz. Egia esan, biok hozmintzen hasiak gara. Zorionez, orain Alde Zaharreko kale eta kantoietan zehar ia antxintxika goaz Kikek telefonoz iragarri didan eta auzoaz bestaldean dagoen etxebizitza liluragarria, egiazko pagotxa, deskubritzearren.

—No sé cómo agradecerle las molestias que te estás tomando.

Eragozpenik baldin badago erlojuak jotzen duen orduaz ari da, gaueko bederatziak aldera agentziaz giltzak eskuratzeko pasatu eta Bakardadea Kantoiraino arnasestuka iritsi ahala. Ez dakit zenbat aldiz batere ardura ez didala erantzun diodan, eta hala eta guztiz ere bera etengabe barkatzeko eskatuz. Ez dakit ere nire eskuzabaltasuna zurtzeko edo niri bizitzari buruz eman dizkiodan zertzelada eskasak gehiegizkoak diren edo agian, eta bera bezalako neska pertxenta bati egindakoak bereziki, apurtxo bat susmagarriak ere nire benetako intentzioen aldetik; inor etxean nire zain ez dudala aitortu berri diot-eta, alajaina. Baita hemendik hogeik kilometrotara, eskualdeko urtegiaren ondoko txalet xume eta ikaragarri moñoño batean bizi naizela ere.

Dena dela, beranduegi da gure moduko gizabanako bi Alde Zaharreko kale itzaltsu eta ustez — akaso gero eta horiztagoak omen diren egunkarien aburuz bakar-bakarrik— beti arriskutsuetan gora eta behera arduragabeki ibiltzeko. Iluntzen ari da eta niri bost, gainera ez zait batere gustatzen urtegi aldean dudan etxeraino gauez gidatzea, bolanteari atxikita hain baldarra naiz-eta, ez da izango gaua agentzian pasatzen dudan aurreneko aldia, eta hain gustura nago neska honekin berbetan, bai berbetan, aspalditik inorekin ez bezala, ez behintzat hain sarri eta aise edozein huskeriarengatik barre eragiten didan norbaitekin, barre ikaragarri zabal-zabala. Bestalde, berari ere nabari zaio ez duela inora joateko presarik, ez eta premiarik ere, edota, eta baliteke hau gehiegi suposatzea ere, ez dela aspalditik inorekin berbetan goxo-goxo eta batez ere hain patxadan egon, hau da, inolako erantzukizun gabekoan.

Azkenean iritsi gara Kikek emandako helbidera hainbat kale eta kantoi arin-arin zeharkatu eta gero, eta orain arte bizi izan dugun arrisku bakarra neure bezeroaren zapaten takoiaren desoreka izan omen da. Horra hor, orain dela gutxi goitik behera berritxuraldatu egin duten eraikina, Alde Zaharreko Erdi Aroko etxebizitzaren kutsua ustez edo behintzat errespetatu nahian, hau da, alforjazkoak deritzaten adreiluzko hormak zein zurezko habeak apaingarri gisa utziz, baina barrutik, osterara, den-dena berri-berria, osagarri aurreratuenak eta garestienak erabiliz eta

lekua behar bezain larrien aprobetxatuz begietara, antza, ahalik eta zabalen eta erosoan eraldatzeko.

Bigarren teilatupe bateraino igotzen ari gara. Eskaileran gorantz goazela pisua, aurrenekoak baino eskailera sendoago bat izateaz gain, orain dela gutxi arte arkitekto batena izan dela jakinarazten diot nire bezeroari. Goraino iritsi eta, orain arte guztiz ezezagun nuen neska honekin hasiera-hasieratik zeinen ondo konpontzen naizen, zein gustura egiten dudan hitz eta pitz, zein gutxi aspertzen naizen gogoeta eginez, atikoko atea zabaldu dut.

—La vas a dejar boquiabierta.

Gaitzerdi, aspaldiko partez edo Kike zuzen zegoen, alafede. Etxeak ia arnaestuka egindako lasterketa merezi izan du. Laura —dagoeneko, hau da, honaino elkarri begiratzeko gentozela, bere izena eman dit-eta— harri eta zur gelditu egin da, ziur asko ni bezainbeste. Ageri da ez zuela inola ere halako etxe zabal, eroso, garbi eta batez ere horma-banakatarik gabeko bat espero. Arkitekto batena da, berak moldatu zuen ahalik eta leku eta bereziki argi gehien izatearren, horra hor ba, lekuko edo bitarteko gisa edo, etxe barreneko sukaldearen atzean topatzen dugun leiho handia, lorategi ezkutu edo behintzat eraikin artean babestu batera jotzen duena. Leiho horretatik, egunez apika argia barra-barra sartzeaz gain, beherantz begira ez du ematen Alde Zaharreko pisu batean gaudela, hiri inguruko txalet xume eta sano dotore batean baizik, seguru asko hiriaren goialde honetako haize garbiaz gozatzeko aukera ezin hobea, luxu bat. Gainerakoa, izugarri handia eta garbia, lehenengo maizterrak ia-ia altzairu guztiak utzi arren, altzairu minimalistak bainoago minimoak eta gehienbat pisuari eman nahi omen zion kutsu ultrafuntzionalaren apaingarri modura. Niri dagokidanez begi zabalik, ez baldin bada erdi zoraturik ere, jarraitzen dut bitxikeria honen topaketaz, eta burutzen zaidan aurrenekoa zintzilikatuta dauden metalezko apaletan utzitako lekua aipatzea; zeure liburuak kokatzeko, esan berri diot izugarrizko aurpegi zein ahots ergel batez.

—No sé cómo agradecerle las molestias que te estás tomando.

Ez dakit zer erantzun, kalean geundela berbajario jardun dut nire nondik norakoen kontura, hain urduri nengoen-eta, baina orain mintzogabe nago, benetan aho zabalik. Hori dela eta, eta nire eginbeharra zein den supituki gogoratuz, sabaian egindako bigarren solairu bateraino laguntzeko eskatzen diot. Badirudi arkitektoak, beheko adreilesi guztiak amildu ostean goiko parte berri hori nola edo hala eraldatatu egin zuela logela gisa.

—En cuanto a los materiales...

Esku keinu sotil batez adierazten dit ez dudala xehetasun hutsaletan sartzeko inolako beharrik edo gogorik. Bistan dago arkitektoak lan bikaina egin zuela etxea eta geure ustez estudio

modura ere erabiltzen zuen teilatupe hau bere gustu txit funtzionalera txukun-txukun moldatze aldera.

Hemen nirea bezalako txaletetxo batean baino goxoago egongo zara.

Esatekotan nengoen, baina badaezpada gehiegizko konfiantzazkotzat hartuko zuen isildu egin naiz. Dena dela, bere aurpegi guztiz irribarretsu eta asetsua ikusi besterik ez dut egin behar bere kautan ere nirekin bat datorrela asmatzeko: bai mauka handia hauxe!

— En serio, no sé cómo...

Fitsik ere ez esateko erregu egin diot. Nire lana besterik ez dut egin, nahiz eta, zalantza barik, hilabete guztiotan lehendabizi gogoz eta atseginez bene-benetan egin.

Eta hain ezustean harrapatu egin nau ezen, eta honezkero beti bere begiratu zorrotzetatik ahalik eta disimulu gehienez ihesi, hau da, etxe-saltzaile modura nire ustezko betekizunetako bat bailitzan, etxeko zoko guztietan arakatzen ari nintzela bar-altzairuan topatu berri dudan botila bat Oportoz baliatuta, eta beti bere erabakia ezin zuzenagoa, elkarrentzako ezin egokiagoa, ospatzearren, edalontziez ozen-ozen topa egitea proposatzen diodan.

—¡Por un acuerdo satisfactorio para las dos partes!

Bat-batean isilune luze, oinazegarri zein amaigabeko bat. —Decidido, me lo quedo.

### III

Gaur goizean oso berandu iritsi berri naiz agentziara, eta Kikereren aurrean aitzakiak emateko edo aiko-maikoetan hasteko astirik izan aurretik, nik uste bere lagunetako bat behingoz bilakatzeko asmotan edo, den-dena, hau da, bera bezalako astapotro batek bakar-bakarrik asmatuko zituen mota guztietako detaile lizun zein zikinez, jakinmin duela adierazten dit. Berrero ere, hau da, egunero edota une oro legez, popatik hartzera bidaltzekotan nago. Bai, aski dut nire lankide maiteak ezagutu nuen lehenengo egunetik duen uste txarra behin berrero areagotzeaz. Ez nau, ez, oso aintzakotzat hartzen. Hogeita hamazazpi urte, oraindio bizitzan funtsezko ezer egin gabea, hots, urteak pasa ahala nolabait aurreratu egin dudala adieraz dezakeen zerbaiten jabe, ez etxe propiorik —pantanoko txalet tippia osabaren ezagun batek alokatzen dit-eta—, ez benetako automobilik, ez eta hau guztia eskuratzeko premia, kemen edo denborarik ere, eta gutxi balitz bezala ere eman nuen urrats bakar eta benetan erabakikorrean ere porrot garbi-garbia egindakoa, banatuta eta noizbehinka bakarrik ikus dezakedan seme batekin, bere moduko benetako gizonetzko bati sekula eta inola ere jazoko ez zitzaiona, eta horra hor ni bezelako koitadu guzti-guztiak inolako erreparo barik gutxiesteko zio nagusia.

Eta hau guztia bart mamizko ezer suertatu ez zela adierazi izanagatik.

—Ez zen ezer gertatu. Ezin da inoiz ezer gertatu bere moduko neska handiusteko eta larrusendo batekin.

Azkenean eta ia ezinbestean sinistu egin dit. Ziur asko gogoratu berri du Laurak berarekin ere oso zakar jokatu zuela bere berezko harropuzkeria lizunari aurre egin behar izan orduko, orduan nirekin zergatik ez?, nola ez? Beharrezkoa da bera bezain gezurrontzia den norbait Laura bezalako emakume baten kontura asmakizunetan lasai asko denbora alperrik galtzeko, eta ni, tamalez, ez naiz batere berritsua, ez naiz sekula izan, ez behintzat nire amesgaiztorik gogorrenetan ere bururatuko ez zitzaidan lankide zatarrena limurtzeko bezainbeste.

Egia esan, ez zuen nigandik besterik espero.

Hala eta guztiz ere, eskerrak ere ematekotan nago. Nola ez, berari esker bakarrik ezagutu ahal izan dut Laura, gaurgero nire Laura maitea.

Eta ezustean ere esan zidan ni musukatzeko irrikan zegoela.

Bigarren kopa Oporto ote zen, berehala burura igo zitzaion ardo gozoak eraginda, agian elkar ezagutu genuen aurreneko unetik biziro bero-bero irrikan zegoelako, nik bezainbat desideratzen zuena, sikiera nire antzera ametsetan edo betidanik halako zerbaiten zain egon

zelako, eta batez ere, berak ondo baino hobeto azaldu zidanez, egundoko gogo bizia zuelako. Bai, gogo, pelikuletan soil-soilik suertatu ohi diren ustekabeko topaketa ero, lizun, ia pornografiko bat izateko.

Bat-batean Hollywoodeko antzezle bihurtua, agian ez izar handi haietako bat, agian ere bigarren mailako bat edo, zin-zinez esateko, pelikula porno bateko amateurra ez beste, eta baliteke ere horregatik bertan bizi zein gozaturiko guzti-guztiaz oroimen fotografiko eta batik batik lizunerako pelikula bat moldatzeko berebiziko ahaleginak egiten ari naizela, egunsentian Alde Zaharreko etxetik nire urtegi ondoko etxerantz ezin nahastu eta alaiago alde egindakoan.

Ezin sinistu Laura ikusterakoan lehenbizi markesa galanta begitandu zitzaidan sagu sudurreko neska argal eta mazal horrekin oheratu izana.

Ez dakit bertan izara artean egindakoa nire ogibide berriaren arauekin bat datorrenetz. Kikerenekin behintzat bai, duda izpirik gabe, berak behin baino gehiagotan aitortu bezala, kontratu on bat sinatzeko denetarik egiteko gauza da-eta. Ez dakit, beraz, nik ere antzekorik egin dudan, hots, nire lehenbiziko kontratua osabaren agentzian landalan jardun dudanez geroztik.

Hots egin behar diot lehenbailehen kontratuaren nondik norakoez berba egiteko.

Nik ez nuen bilatu, ez nintzaion oldartu bere musuaren bila, nik ez nuen ezer egin berak ni musukatzeko erabakia har zezan ezustean, zoro moduan hobeto esanda, ia goitik behera irentsi nahi ninduela, di-da biluztu eta ohera iritsi aurretik nire zakilaren jaun eta jabe egin zela marisorgin baten antzera, ohe ertzean bertan esererazi eta nire narritaduraren ikurra ahoratu orduko zeruko atea ikusi nituela, atejoka hustu nintzela lehenbizikoz. Bestalde, nola eutsi niretzat gaur arte indarrean zegoen kodigo bati Laura bezalako neska jator eta eder baten aurrean, nola ez makurtu bere ezpainetan marratzu eta mota guztietako lizunkerietarako bide ematen zuen irribarretxo oker eta lohi hartara. Sekulakoak izan ziren izara artean eman genituen minutu amaigabekoak, denborarik egon baldin bazen behintzat, ohean bageundela hain mingarria eta gupidagabekoa den denbora supituan erabat gelditu zela sinistuta bainoago, gure gorputz biluzi biak eta ordura arte inorekin eta inola egiten otu ez zitzaizkidan haragikeria guztiak, gure bi gorputzen zirrikitu guztiak aztertzea zein laztantzea lege bakarra izan bagenu bezala. Ordubete edo pasioaren gatibu, baita aspaldiko zein aparteko arduraz eta atseginez, eskuartean, hankartean ere, ia iltzaturik nuen emakume ezezagun horrekin beste behin gozatzeko parada izango ez nuelakoan.

Gau bateko lorea.

Biharamunean, ez, biharamunean ez, gustatuko baina ez, txortan egin eta gero, ezin baldarrago jokatu nuen, nirekin ohean etzanda zegoen neskato pinpirina ikusita, eta lotsak eraginda, arineketan jaiki eta jantzi nintzen-eta.

Nora nindoan itaundu zidan. Nola aitortu ez nintzela azalean nabarmen-nabarmen nuen lotsagatik aurpegira begiratzera ausartu, badudala oraindik nire gainean, hamabi urterekin Duranako ikastolera aldatu aurretik, nire aurreneko eskola urteetako abadeek ondo baino hobeto erakatsi ohi zizkidaten beldur eta lotsa guztien zantzua, urtetan nire burutik uxatzeko zein ukatzeko mota guztietako eginahalak egin arren, batez ere jasotako heziketaren atzean ezkututzen zen ideologia atzerakoiaren kontra, edo hori behintzat zen nik urtetan gogoz eta bihotzez uste izan dudana, eliza kutsuko edozein gauzaren kontra harrika egin behar dudalakoan beti printzipioz, funtsean zena inkontzientetik ihesi egin nahi bezala, baina beti haiek ezin eraginkorrago irakatsi bezala ere, hau da, euren Kristoren urratsen atzetik, txiroen alde bizia eman ez baina oraingoan misiolariaren biblia barik, oraingoan, berriz, ezker-muturreko borrokalariak tabernarik taberna banatzen zituen panfleto zirtzilen bidez, edonoiz eta edonola ere langilegoa, ustez gertuen nituen txiroak, pariak, eta aberria uztartu guran, bere bizitzaren zentzuaren bila zela, bere ondokoenak ozta-ozta arriskutan ipini egin zituen.

Eta ez naiz inoiz Jaungoikoarengandik hain gertu egon bart bezala.

Gaur goizean ere abade-eskolako haur ikasle xume eta lotsati hura, aspaldi barneratu fedearen aurka biraoka, berriro ere bere erruz nire zoriontasuna zapuztekotan nengoen-eta.

Sekula ez bezala, goxo-goxo emakume batekin ohean eta larrutan geundela, izerdi-patsetan behar bezala, sexu galdatan hain bizkor-bizkor zihoazen gure bi bihotzak, elkarren gainean arnasestuka, inolako lotsa edo kulpa barik, bere gorputz mehe eta xamurraren arrakala guztietan usnaka, bere bular, izter, belarri eta abarretan fereka, sudur punta berezi hartan musuka, titiburuetan etengabe atximurka, hatz luzea alu bustian galduta, katu bat sagutxo harekin olgetan.

Eta txortan egin orduko ohetik jaikitzen naiz bide ertzean topaturiko puta batekin egon berri banintz bezala.



## IV

—Llamo para preguntar por lo del ático que vimos anoche.

Jokuz kanpo harrapatu nau. Beharbada bestelako berba batzuk espero nituelako telefonoa hartu eta haren ahotsa entzun bezain laster. Gutxienez hitz eztiago, xaloago batzuk, konfiantza zein konplizitatezkoak, ez maitasunezkoak, bai zera!, ez eta bart izara artean iziotu zen sutearen txingarren hotsa ere. Bart ikusi genuen atikoaren nondik norakoez itauntzen zidan ahots bero edo agian amoltsu bat espero nuen soilik, inola ere ezezagun arteko gizabide hotza. Bart sekula ez bezala larrutan egin nuen, egundokoa izan zen guzti-guztia, mundiala.

Eta ez, ez pentsa aspaldi egin barik nengoenez, aspaldi egiazko pasioaz egiten ez nuelako baizik, aspaldiko partez bera bezalako neskato atsegin, lirain eta fin bat topatzen ez nuelako.

Alaznerekin apurtu eta gero antzeko amodio zoro edo inozo bat inoiz berriro sentituko ez nuelakoan nengoen. Izan ere, ez nuen sentitu nahi, maitasunak min egiten omen du. Ez, hori ezta egia, amodioa zoragarria da, mintzen duena desamodioa da, hau da, pasioaren ondorengo guztia, hondakin erresumindua.

—....pasarme esta misma tarde a firmar el contrato.

Berriro etxe-saltzaile huts bat banintz bezala, bart ezer gertatu ez balitz bezala, ohean huts egin banu bezala. Baliteke ere emakume haietariko bat izatea.

—Emagaldu bat?

Emagaldu, urdanga, lilitxo, pailarda, bordion, prostituta, puta, puta handi bat, putatzarra, munduko emakumerik putena.

Ez, inola ez, hori ez litzateke larregitxo esatea, hori litzateke betidanik gorrotoen izan ditudan gauzetariko bat, astapotro taberna-zulo ahobero baten modura emakumezkoak iraintzea, hain zuzen ere Kike bezalako astapotro taberna-barbakoa-zulo ahobero bati egozten diodana.

Onartu beharrean nago nahitaez, bai ahotsean, bai berbetan erreparatzekotan, ez bide duela inolako asmorik bart gertaturakoa gogora ekartzeko. Baliteke ere damututa egotea. Egundoko ahaleginak egin behar dituela bere txorta-gura menperatzeko eta hala eta guztiz ere... Baina ez, ez dirudi edonoiz eta edonorekin oheratzen direnetakoa.

Horixe nioen nik, emagaldu bat.

Noski ezetz, ezin zait bera bezalako andre dotore, harro eta buruargi bat edonoren besoetan begitandu, oso gogoko izan behar du gizonezko bat, haren tankerakoei guztiz preziatua izan behar zaien ustezko duintasuna arriskutan ipin dezan, hau da, nire moduko arlote batekin oheratzera umildu dadin birritan.

Dena dela, hori baldin bada bere nahia, errespetatu besterik ezin dut egin. Baliteke berehalaxe berotzen den bakarra ni naizela, ganoragabekerietan jo eta ke ari dena ere bai.

—Hay un problema.

Bat-batean isilaldi luze eta ustez edo txit adierazgarri bat telefono hariaz bestaldean. Berdin dio, nire lana bete behar dut halabeharrez, gogoan esateko ditudan hamaika berba alde batera lagata. Hau da, bart ikusi genuen atikoaren jabea atzerrian dagoela, Kalifornia aldean bizpahiru hilabetez egongo dela eta bera bueltatu arte ezin dela inolako kontraturik sinatu.

Erantzun dit ez zaiola batere ardura itxarotea, atikoa oso gustuko duela, itzel. Hori dela eta, eta kontuan hartuz ere atikoaren abantailak erakutsi egin nion aurreneko atikoaren aldean, merezi du arkitektoaren zain egoteak. Gainera, oraingoz haren izeko-osaben etxean oso gustura bizi da eta euren konpainiaz apurtxo bat gehiago gozatzeko parada aprobetxatuko du, badira bi egun bakarrik haren sorterrira itzuli berri dela.

Ezin dugu egin bart gure artean ezer gertatu ez balitz bezala.

## V

Azken-azkenean bizitzaz berriro gozatzeko mamizko motibo bat. Aspaldi ez nintzen hain ondo, batez ere nire buruarekin lasai, lasai asko, Laurarekin bezala. Oraingoz ezin dut esan maite dudala, baina bai berarekiko lotura gero eta handiagoa dela, nire aldetik behintzat. Ez dakit berak ere antzeko zerbait gogoan duen, auskalo. Nola jakingo ba, apenas berba egiten badugu, geure azken egunotako topaketak, hau da, Cordoneria kaleko teilatupean, guztiz arrapaladatsuak eta lizun-lizunak izan baitira, nik pasioak eraginda asmatu nahi ditut, badirudi hura beti haren osaba-izeben etxera garaiz bueltatzeko larri-larri ari dela, eurekin gaur gauean dituen ez dakit zer-nolako ezinbesteko betebeharrak direla bide edo, afaria prestatu behar ote dien edota erdi elbarri edo direla oheraino laguntzea. Hori da behintzat ematen didan aitzakia, larrutan jotzen bukatu orduko neure besoetatik albait arinen askatu eta ospa egindakoan. Hala eta guztiz ere, eta hiru bider bakarrik elkar ikusi ostean dagoneneko ezin argiago dut: Laurak berpiztu nau.

—Deberíamos replantearnos todo esto que estamos haciendo, por qué lo hacemos, para qué.

Eta oraindio ohean gaudela, oraindio arnasestuaren hondarrez arkitekto handiustekoaren ohe erraldoi ezin postmodernoagoan txortan ezin kemen eta trebetsuago egin eta gero, eta neure aspaldiko garai benetan bihurriagoetan bezala, erdi ezkutuka edo hiru aldiz erabili eta aldi berean ere lekuko bakarra dugun atiko erdi hutsetik alde egitekotan dagoela, Laura aiko-maiko sumatzen dut aurreneko aldiz.

—No quiero que te lleves una opinión equivocada de mí.

Gaixoa, ez daki aspaldi utzi egin niola inolako usterik izateari, badaezpada behin berriro kale egiten nuen, badaezpada berriz hondatzen nintzen erabat, behin betiko. Nolakoa zen atsotitz zahar hori?: usteak erdia hutsa eta beste erdia putza. Hari buruz dakidantxoaz ondo baino hobeto moldatzen naiz, hau da, aspaldiko partez ez bezala harekin ikaragarri zorionsua naizela, egia esan inoiz ez bezala, eta ohean edo nire ondoan etzanda goxo-goxo izan ez ezik, arratsaldeko ezkutuko topaketa hauetaz gogoeta egiten dudanean ere, agian batez ere harekin gogoeta egiten dudanean. Nire ustez ez dut inolako eskubiderik nirekin zerbait mamitsuagoa edo agian iraukorragoa izan dezan eskatzeko, arrapaladan izan ditugun topaketa hauetaz landa zer edo zer. Ikusi, besterik ez dut egin behar, edo gogoratu, Laura nire gainean edo azpian larrua joka, eta bera aspalditik ere, eta agian neurri berezi eta niretzat guztiz ezezagun batean, txortagurak zegoela begitantzen zait. Bestela ez zait kasketean kabitzen ohean jaun eta jabe izateko duen irrika eroa. Ez dit inolako aukerarik ematen, ohean etzan orduko nire gorputzaz jabetzen da eta biok asetu arte ezin diogu elkarri zentzunezko ezer serio-serio eta ozen-ozen esan, arnasestuka baino edota hiltzorian bagina bezala.

Nire urtegi ondoko etxeraino eroan gura zaitut.

Atzera egin du, nire ateraldiak apurtxo bat ikaratuta. Ageri da bizkorregi goazelakoan dagoela, horregatik susto ederra hartu du ustekabean, ez baitu niregandik antzeko proposamenik espero, biok orain arteko elkarrekiko arduragabekiaz guztiz konforme geundela uste zuen-eta. Egia esan, eta baita berak ondotxo adierazi egin didanez ere, ez du gogoeta handirik egin gure arte-koaz —nolabait esateko oraingoz inolako izenik jartzeko ausartzen ez naizena—, agian ez zuelako, ezkutuko txortaldioz aparte, besterik gura edo espero, batez ere ni bezalako gizonezko osasuntsu, heldu eta diskretu bat topatutakoan, adinak zein nire egoera pertsonalak, hots, banatuta eta oso lantzean behin bakarrik dakusakedan seme batekin, eraginda inolako eragozpenik emango ez ziona.

—Deberíamos replantearnos todo ésto, adónde vamos, quiénes o qué somos en realidad.

Nik egina badut eta horregatik hurrengo topaketa, gure artekoa benetan aurrera joan dadin benetan nahi izan ezker, nire urtegi ondoko etxean izan behar dela horrenbestez azaltzen diot, beharbada oso makala den aitzaki bat gaineratuz; Kikereren jakin-minaren beldurra. Ez baitut inola ere ezkutuan erabiltzen dudan giltzaren falta sumatu orduko zer edo zer asmatzeko motibo franko ematea, kontuan hartuta, batez ere, nire lankidearen berezko maltzurkeria, hau da, bera bezalako saltzaile lukurreroei berezkozat egotzi ohi zaiena, beti zelatan ea edozein huskeriarengatik hanka sartzen dudan, nire uztez berehala nire osabarengana kontuaz joateko, niri egindako mesedeari zein muzin eta oker erantzun diodan erakustearren edo.

Usteak erdia hutsa eta...

Laura, oster, ez dago oso ados nire bat-bateko eskakizunarekin, badirudi inoiz gainditu behar ez nuen mugaz urrunerago joan berri naizela. Badirudi ere oso argi eta garbi duela, horregatik aitortzen dit bere sorterrira itzuli dela asmo bakar eta sendo batez, lasai ondo bizitzera eta eragozpen zein nahi handirik gabeko lan batean murgil/aspertzera. Geurea, gure artekoa, beraz, denbora-pasa moduko zerbait begitantzen zitzaion, besterik ez, itzulera apurtxo bat arinago, goxoago apika, egiten zion ustekabeko istorio laino bat.

—No quiero que te lleves una opinión equivocada de mí.

Nola ez esan harengandik espero nuen bakarra hauxe zela: nire aldamenen urtegi zabalera ahoa zein begiak zabal-zabalik egotea. Askotxo kostatu egin baitzait, hamaika aitzakia zein erregu eman eta gero, merezi didan garrantzia sinestaraztea, batez ere Kikereren mihigaiztokeria argi eta garbi azalduta. Ez zuen inola ere ni laguntzea nahi. Egia esan, bazeritzon gehiegizkoa, oraindik oso ondo bereizten ez zekien zerbaitera behartzen zuelakoan edo. Hala eta guztiz ere, eta nik bakarrik dakidanez, eta behin eta berriro erreguka egin ostean, Laurak men egin du bihar larunbata izango den aitzakiaz. Honaino gentozela, aldiz, ezin urduriago ematen zuen

autoan etengabe zabuka edo, azienden nondik norakoak eragozteko zoruan jarritako burdinsareak zirela-eta, jauzika, guztiz okerra eta meharra den bigarren mailako bide erdi asfaltatu berritik. Infernuraino edo neramala beldurrak egon da harik eta azken urteotako eraikitzaile lukurreroen neurrigabeko arrakasta delakoak oraindik orain bere errautsetatik aterata berpiztu egin duen Bagoeta herrixkara iritsi garen arte.

Etxera sartu garela, ostera, ikaratuta ez, harri eta zur geratu egin da, gaixoa, zurbil eta guzti. Errua neurea izan da, ez baitut betarik ezer konpontzeko, biltzeko, garbitzeko edo bederen apurtxo bat abegikorrago uzteko. Den-dena zegoen hankaz gora, hau da, bakarrik eta gehienetan inolako ardura barik bizi den gizonezko baten modura, eta utzitako anabasaz gain, nik uste etxearen beraren txirotasunak ere eragin handia izan duela Laura txunditzerakoan.

—Supongo que no me habrás traído hasta aquí para que te recoja la casa.

Iribarretxo maltzur bat egin eta atoan biok ohera zuzen-zuzen berriro. Agian ordura arte ez ezagututako esku/hanka/laztan/musuzabaltasun batez ere, larrua joka ihardun dugu. Bizpahiru isurialdiz gero urtegiaren gaineko ilunkeraren aitzakiaz Laura ohetik jaiki, nire gaurko elastiko urdina jantzi eta logelako leihoa ziplo zabaldu egin du.

Urtegi ondoko etxe batean bakar-bakarrik bizi den gizona.

Horra hor hemen bizitzeko zio bakarra, hiriko zaratots zein mihizgaiztoen marmarretik hainbat urrunen bizi nahia, baso, larre eta nire urbanizazioaren ondoko pagadi artean, ezin lasaiago nire etxearen osteko mendilerroaren itzalpean edota urtegi aldetik heltzen zaidan sosegu likido-telurikoaren eraginpean. Leihoa zabaldu ahala, edozein arima baretzeko moduko postalezko ikuspegi atsegin horrek ni ere arrunt zorutzen nau, ia egunero.

Alabaina, ez zait sekula bizian gustatu herri txiki batean bizi izatea. Ezta nirezko bizi esparrua ere. Nahiz eta inguru honetako edertasun zein baretasun amaigabekoaz gozatu, nekazal giroa beti arrotza eta batik bat bihozgogorra ere begitandu zait, nire oraingo eta geroko nekazal-zaletasuna itxurakeria besterik ez da izango. Hileak, egunak, urteak pasa ahala, badago beti zer edo zer, ez dakit kaleetako joan-etorriaren bakakardea edota taberna falta hutsa, nahitaez atsekabetzen nauena, nire burua kaletar peto-petotzat jotzen dut-eta.

Jakina, Laurak ez du hitzen beharrik honaino etorritakoaren zergatiaz galdetzeko.

Nire hiritik kanpo urtetan bizi naiz eta ez nuen inolako gogorik lehenagotik lagun edo ezagunak ez beste ziren gizakumeen artean bizitzeko, ondotxo dakizunez, behartuta bakarrik itzuli naiz, ez bainuen nora jo ez baldin bazen nire senitartekoen altzora, babesera, hots, nire osabaren agentziara.

Lagunik? Izan nituen adiskide edota lagun guztiak nire ustez gehiegitxo koskortu eta agian mantso ere egin dira. Gainera, geure bideak ere nahikotxo bereizi egin dira nahitaez, oso noizean behin bakarrik elkartzen gara eta berehala konturatzen naiz dagoeneko ez dudala eurekin mamizko ezertaz berba egiteko gogorik edo adorerik, dagoeneko euren kezkek eta neureak oso bestelakoak dira, egia esan nire aspaldiko adiskide edota lagunengan nire betiko gurasoak zein eurenak isladatuak, kalkatuak, ikusten ditut, eta horrek, nola ez, biziro izutzen, uxatzen, nau, batez ere kontuan hartuta bai nik, bai haietariko gehienek ere, euren gurasoen bizi eta ikusmoldeen aurka esan eta egin ohi genuen guzti-guztia.

Inoiz koskortu nahi ez duen berrogei urte inguruko gizona.

Baliteke, garai batean, oster, euren modura ere koskortzen saiatu nintzen, hau da, familia bat sortu eta, aspaldiko borrokak zein herrak alde batera lagata, derrigorrezko gizonetzko zintzo bat izateari ekin nion. Porrot egin nuen neure izaerari uko egitea bakarrik lor ziezaiokeen alferrikako saio batez, bai nire orduko emaztearekin, etorkizuna bermatzeko saioetan eta zer esanik aita gisa. Egunetik egunera nire burua lehenik kartzelan eta gero kale gorrian ikusi eta gainera esku hutsik. Horrezkero, gutxien arduratzen nauena gainontzekoen begien aurrean behar edo espero bezalako gizonetzko zintzo, otzan edota esaneko bat agertzea da.

—Baina, hain bihurria al hintzen?

Beldurrak nago ezusteko aitorten honek Laura uxatuko duen behingoz. Esan badit alde aurretik ez duela nirekin ezer seriorik nahi, are gutxiago elkarrekiko etorkizun asmorik edo, utikan geroa!. Egia esan, eta txantxetan edo, esan badit ere balizko etorkizun bat bilatu ezker ezin zaiola ni baino hautagai txarragorik, ezegokiagorik, arriskutsuagorik begitandu. Eskertu egin diot zintzotasuna, ezinbestez. Laura zuzen dago, ez nuen besterik espero bera bezalako emakume buruargi eta batez ere zuhur batengandik. Dena dela, bai teorikoki nire semearen amarekin ezkondu aurretik eta bai esperientziaren bitartez berarengandik banandu ostean, emakumeez inola ere ez fidatzen eta areago gogoan ez hartzen ikasi egin dudalakoan nago, ondotoxoa jakinda ere nire oraingo misoginia babes edo zuribide moduko jokaera inozo bat besterik ez dela. Gezurrontzi hutsak dira, batez ere sentimenduei dagokienez, etengabeko disimulu bati eusten baitiote helburu bakar batez, hautatu duten harrapakinaren gaineko kateak apur-apurka gero eta tinkoagoak bilakatzearen.

Zuk ere ezin duzu esandako hori seriotan hartu.

Baina ikaragarri gustatuko litzaidake benetan sinistea, aitzakia bikaina bailitzateke gaurdaino egon garen bezala luze jarraitzeko, ez baita Laura bakarrik inolako konpromisorik gabeko harreman baten bila dagoena; nik ere bera bezalako ohaide baten zain nengoen aspaldiko partez.

Eta behin berriro ea gaztetan oso bihurria izan nintzen etxean zein kalean. Zenbateraino jakin nahi luke? Hobe dugu hori bertan behera uztea, esango diot soilik kartzelera bidean ipintzerainokoa izan zitekeela.

Zenbat eta elkarrez gehiago jakin, gero eta okerrago hain gogoko dugun ustezko libertade arduragabeko honetarako.

—Beraz, ez duzu koskortu nahi?

—Auskalo!

Askeak izateko, bene-benetan askeak, hau da, elkarrekiko erantzukizun bakarra oheko izaren azpikoa, orainaz behar beste eta iraganaz aipatzekorik ez, horrela bakarrik jakingo dugu batzen gaituen apurrak ez duela inolako etorkizun asmorik edo aukerarik.

Laura ezin da konformeago egon, horregatik, izandako elkarrizketa ezinbestekoa izanda ere behin betiko agortu delako, leihoan haren ondoan jartzeko eskatzen dit, aurreko zuhaitzok pagadi bat al dira? Nola du izena ondoko herri horrek? Eta urruneko mendi haiek?

— No me imaginaba que hubieses sido tan rebelde.

Une batez duda-mudatan adinaren kontura bakarrik zirikatu nahi nauen, bestalde, benetan jakingurak dagoen nire iraganaz. Politika kontuak.

—Ah, bueno, entonces no quiero saber nada.

Eta nik ez nuen besterik espero hain gaztea eta itxuraz behintzat apurtxo bat konbentzionala ere ematen duen neska batengandik, hau da, gaur egungo edozein gazte arruntengandik, eta guztiz gain ere kanpotik etorritako batengandik, Laura hemen jaio, baina oso haurra zen bere familia Madril aldera bizitzera alde egin zuenean, hots, ez duela nekez, eta zorionez, Euskal Herriko sasoirik gatazkatsuenak ezagutzeko edota hemen bizi izandako bipolarizazio nazkagarriaz blai egiteko paradarik izan. Bestalde, horixe da ere harekin hain gustura egoteko beste oinarrizko motibo bat; politika, berez hain gauza arbuigarria, saihesgarria izanda, ez dela inola ere gure artekoan oztopo edo auzi-biderik izango.

—Al menos espero que no tuvieras nada que ver con esos hijos de puta de la ETA.

Laurak, lehenago guztiz kontrakoa esan arren, badirudi berehala damutu egin dela. Ez da harrizkoa, ETA bezalako talde batek edonorengan, hau da, nire aspaldiko modura alde zuzenetik aurretik maximalismo politiko-etniko batek pozoitua ez den edozein pertsona zintzoarengan, sortzen dituen arbuioa edota gorrotoa kontutan hartuak, aitonen seme den edonorengan,



noski. Honez gain, Laura gaur goizean, nire bigarren solairuko leihotik zeruertzero edo guztiz ezaxola begira dagoela, inoiz baino berritsuago eta estreinako aldiz jakingurago, nireak zer-nolako kontuak izan ziren asmatu nahi du.

Noiz edo noiz gertatu behar, hau izan da nire azken urteotako jokaerarik baldarrena, arduragabekoena, nire aurreiritzi toxikoez bizitzari aurre egitea. Hori dela eta, norbait ezagutu eta segituan nolabait epaitu eta sailkatu egin behar du haren ondoan ziur eta eroso sentitzearren, bestela berehala artekatzen naiz, ez dakit zeren beldur, seguru asko ezusteko salaketa baten zain edo atzetik etorrita zoro-zoroan, biraoka zein ostikoka, oldartuko zaidan norbaiten beldur. Ezin dut, beraz, egin Laurari nire kontuon nondik norakoak axola ez balitzaizkio bezala, zertan ari nintzen aspaldian, zergatik atxilotu ninduten, zenbat urtez. Nola ez arduratu, gainontzeko gizakume guztiak, aldeztatik inolako jarrera politiko barik edota gure liskarraren gorabeherak azalez bakarrik ezagututa ere, nola edo hala arduratu behar dituenaz; erailketak, leherketak, mehatxuak, inola ere normala ez den herri baten aurpegiak hitsena, gaitzesgarriena, itsusiena. Behin berriro gezurraz baliatuko naiz errealitate petral eta mingorriari aurre egiteko, oraingoan inola ere galdu edo uxatu nahi ez dudana neskato pan-pox honen behin-behineko oniritziari eustearren.

Gaur egun ez naiz batere harro aspaldiko kontuotaz.

Aurreneko gezur hutsak, ostera, ez dit askotxo lagundu Lauraren susmoak alboratzeko, haren begitarte zimurtua lekuko.

Amaigabeko isilune baten ostean, azken aste honetan Laurarekin bizi eta batez ere gozatutako guztiaz gogoeta azkarra egiteko bezainbestekoa, Laura bezalako erdi-madrildar eta ustezko mari-apain atzerakoi baten aurrean nire iraganaren bekatu larria behingoz eta behin betiko aitortzen saiatzen naiz.

Noizik behin parte hartu ohi nuen Herri Batasunaren mitinetan zein manifestaldietan.

Hori da guzti-guztia, edo behintzat nik hala izatea nahi dudana.

Lauraren begi eder eta inoiz baino zorrotz eta distirantagoak nire gainean iltzaturik antzematen ditut. Aiko-maiko dagoela begitantzen zait, ez dakiela zer erantzun edo nola jokatu aurreneko aldiz edo ezagutu berri duen balizko ETA-zale baten aurrean, orain arte ohaide izan duen gizonak berari guztiz ulergaitza izan behar zaion hiltzaile batzuen pentsamolde berbera noizbait eta nolabait defenditu izan duela.

—¿Tú eras de los que creían que el fin justifica los medios?

Ezustean harrapatu egin nau Lauraren galderak, dagoeneko ikaragarri gogait eginda nago, beharbada azken urteotan baino gehiago, oraingoan baitaukat neure aurrean benetan estimatzen dudan emakume bat, orain dela gutxi arte, kartzelatik irten baino pare bat hilabete lehenago hain zuzen, emazte nuen borrokaide pospolin eta ikaragarri bihozgogorrarekin ez bezalako, orain arte inork ez bezala liluratu egin nauena, haren ondoan inorekin ez bezala ere ezin gusturago eta batez ere libre sentiarazten nauena, inolako duda barik ere neure egia, egia borobila, merezi duena, baina inola ere eman ez diezaiokedana.

Gaztetan beti oker zaude printzipioz edo inertziaz, orduko giroak bultzatu ninduen orain guztiz gaitzesgarriak, zitalak eta batez ere okerrak begitantzen zaizkidan bitartekoei laguntzera.

Lauraren begirada berriro leihoaz bestalderantz zabal-zabalik, goizero jaikitzen naizenean so egiten diodan urtegi urdinkara eta ene gogoan behintzat lasaigarriari atxikita. Badirudi arnasa hartu behar duela urtegi horretaraino luzatzeko moduko haspeen sakon bat egiteko edo, badirudi ere nire aitorenak nik espero baino zorrotz edo sakonago atsekabetu egin duela.

Ez dut ulertzen, batez ere gauden herrian egonda, bizi izan ditugun urteak gogoan hartuta, urte latzak, ikaragarri latzak guztiontzat, alde batean geundenontzat zein besteontzat ere, azkenontzat apurtxo bat gehiago apika, azken finean eurek ETArek bortizkeria neurrigabekoa pairatu behar izan baitzuten nahitaez eta guk honek eragiten zuen zapalkuntza poliziala eta inola ere bezainbestekoak izan ez ziren Estatuaren gerra zikin eta isilaren bidegabekeriak, bidean galdutako zenbait lagun eta gure senitartekoei eragindako samina. Kostata, baina ni ere konturatu nintzen, azken-azkenean, neure borroka-kideen egoskorkeria ideologikoaz edota itsukeria moralaz, horregatik gaur egun aspaldi sinesten eta defenditzen nuen gehienaren aurka nago, horregatik ere politikaren joku zikinari muzin egiten diot, ez dudalako inolako gogorik berriro barreneraino hanka sartzeko, behinola erabat okertu bezala, eta Laurari ondoko hau sekula aitortuko ez diodan arren, honezkero nahikotxo kontatu egin diodalakoan, nire etorkizuna kolokan eta batez ere maite ditudan gurasoak zein semea ere ozta-ozta oinazera bidean jarri egin nituelako. Hau guztia horrela izanda, eta beharbada berak ez dakiena ere, inola ere jakin ez lezakeena, niri dagokidanez inoiz jakingo ez duena, orain naiz ni atsekabetzen dena, Lauraren jokabidea gehiegizkotzat jotzen dut, berak ere orduko borroketan parte hartu edo zerikusirik benetan izan balu bezala, hau da, bere adinaren arabera ez dagokion benetako edo mamizko ezagumendurik balu bezala, hau guztiaz aparte bizi izan balitz bezala. Galdetzekotan nago, jada apurtxo bat aztoraturik, sumindurik, ea ETArek bortizkeria errotik gaitzesteko nik baino motibo gehiago duela uste duen.

... no quiero saber nada.

## VI

Laurak ez zuen nire iraganaz ezer jakin nahi eta nik bihotz-bihotzez eskertu egin nion. Ez nekien, ezin nuen jakin, baina kontutan hartuta nire nerabezaro zoroa hobe nuen tutik ez esatea, batez ere Madriletik etorri berria zen neskato baten aurrean, orduko giroa zer-nolako ustela zen hamaika aldiz azalduta zer egin edo pentsa ez zekielarik egongo zena, ezin izan baita nire garai hartako mundu zalapartatsu eta ikaragarri hertsu eta bortizzetik at bizi den edonorentzat oso atsegina edo erakusgarria telebistan sarri askotan ikusi ohi dituzun basakerien egileen lagun batekin oheratu zarela jabetzea.

Baina ni oso gaztea nintzen, orduko giroa eta gaur egungoa guztiz bestelakoak dira, ni ere izugarri aldatu egin naiz, goitik behera, kostata, baina gartzelak ere dezente lagundu dit, gogoeta egiteko batik bat. Gaur egun bortizkeria mota guztiak gaitzesten ditut, alafede.

Nolabait ere, baliteke Laurak hori inola ere ez ulertzea, baliteke bera bezalako milioika gizakumek berdin egitea, nik neuk oraindik ere ulertzen ez dudan bezala, ez behintzat orduan egin bezala, neure konpromisoa norainokoa izatera heldu zen jakinda, bost axola niri garai hartan bizi edo sartuta egon nintzen giro benetan itogarri eta eroak eraginda-edo, hots, ezagun nituen lagun zein gertaeren eragina, dena delakoa, eta zinez diot, zeharo damutzen naiz, dagokidan heinean bederen, ez baitut inolako gogo edo asmorik Kristoren modura munduko pekatu guztiak nire bizkar hartzeko.

Bada, orduan, betiko gorde eta isildu behar izango dudan zerbait, ez da bakarra izango. Bikote artean antzeko sekretuak oso ohikoak baitira, nire ustez ezinbestekoak gure harremana behar bezala aurrera joan dadin, egia ez baita beti berez onuragarria, maiz ere egia itzel kaltegarria izan daiteke, batez ere badabilena oztopatzeko modukoa denean, eta geure artekoa ez dabil batere gaizki, ikaragarri ondo baino, geure artekoa inoiz izan dudan harremanik asegarriena da, inora ez doazen —ez baldin bada betiereko bizimodu hutsal batera— harreman gehienak bezain atsegina, goxoa eta batik bat lasaia, eta hori da, nire emaztearengandik banandu eta gero, makinatxo bat amets eta egitasmori muzin egin eta gero, nire gaur egungo bizimoduaz nola edo hala moldatutakoan, gogokoen dudana: lasaitasuna.

Ez dago esan beharrik berak ere zer edo zer niri ezkutatzeko munduko eskubide osoa duela, jakina. Hala onartu egin behar dut nahitaez, hau da, elkarri ezer esan barik, gogoz bakarrik apika, geure hitzemanik gabeko akordio bakarra.

Dena dela, Laura, sikiera puskatxo bat, azaletik soilik, ezagututa, nire Laura ederra eta buruargia, nire Laura bihotz handia, Madriletik ni maitatzeko propio iritsitako emakume mari-paina, haren sorterrira aspaldiko partez itzulitako neskato pinpirina, ez dut zertaz kezkatu

behar, hain gaztea izanda eta hain urrutitik etorrita niri azken urteotan behin eta berriro aztoratu egin gaituen ditzosozko gaiak inolako zerikusirik edo jakin-minik izango ez duelakoan. Eta horixe da, neurri handi batean ere, Laurarekin hain gustura, lasai asko, tarteka esne mamitan ere, egoteko beste funtsezko motibo bat, aspaldi deskubritu bainuen gauza pila dagoela ditzosozko gai hori behingoz alde batera lagata, hain zuzen ere, urte askotan arduratzen ninduen bakarria izatera heldu zena, bizia zeharo irauli eta izorratu egin zidana.

Eta nik aspaldi ere zin egin nuen harrezkero nire buruaz bakarrik arduratuko nintzela.

Laurak ere arduratu nahi bezala, bere amarengandik ihesi etorritako alabatxoa, bere jaioterrian senitartekoak baino ez dituen, egunak hurrenez hurren euren osaba-izekoen etxetik lanera eta lanetik nire etxera iragaten zituena, konfiantzako gizabanako bakarria ni nauena, hiri honetan, munduan agian, hain bakarrik dagoena. Lauraren bakardadea neure presentziaz betetzen saiatzen naizela dirudi; bestela ezin dut inola ere ulertu zergatik ari naizen bera bezalako neskato eder, lirain eta azkar batekin ohe-jokoetan, ezin baitut amodio berba inondik ere erabili gure arteko edade alde hain agerikoa izanda eta orain kontura ez datorren beste hainbeste bateraezintasun, esan nahi dut, sozio-kulturalak edo antzekoak, nik behintzat ez hain aspaldi aintzakotzat hartu ohi nituenak. Argi dago biotako bat gutxienez denbora alperrik galtzen ari dela, biotako batek etorkizun oparoago bat merezi duela, biotako batek noizbait eta nahitaez sufrituko duela. Noiz edo noiz bertan behera utzi behar izango dugu, ni behinik behin eta egia esan ia hasiera-hasieratik uztekoan nago. Ez naiz ausartzen ala ez dut egin nahi, baina, oso laster da, geurearen hastapenetan gaude eta ez litzateke oso bidezkoa hain zoriontsuak, edo agian axolagabeak bakarrik, garela dena egunetik egunera supituan uztea. Denborak lagunduko dit/digu, menturaz.

Gaur larunbatean, esaterako, eta Bilbon geundela, Laurak ditzosozko Guggenheim ikusi gura zuen, hau da, gaur egungo ezinbesteko bisita, nahiz eta ni hamaika aldiz barruan egon eta oraindik barruan, noizean behingo erakusketaren bat alde batera lagata, mamizko ezer ez topatu, eta betiere gero eta konbentzituago benetako erakarpina eraikinaren xarma ukalezina bera dela eta ez besterik, hau da, barruko ia guztia aitzakia hutsa gaur egungo titaniozko katedral baten egitura kiribildu zein distiratsua miresteke eta kito; txintxin diruaren hotsa. Gure artekoak aurrepauso handi bat eman du. Izan ere, gaurkoa izan da elkarrekin egin dugun geure aurreneko oster. Honezkero argitara irten bagina bezala, ezkutuko amodio debekatu bat izatetik denen aurrean harrotzeko moduko bikote arrunt bat bilakatuz, hori bai, VII oraingoz behintzat geure hiritik kanpo, badaezpada.

Edonola ere, derrigorrezko bisita zein eritzi arinak egin eta gero, besteak beste herri honen itxuraldaketa, apur-apurka baina baita geldiezina ere, delako museoa adibide hutsa denez, alde zaharreraino gerturatu gara pintxotan derrigorrezkoa ere zen bakailaoa bazkaltzera joan aurretik. Laurak pozarren ematen zuen, gaur arte ez bezala, nik etengabe esan eta egiten nituen txantxa zein zirtoei beti adi eta irribarretsu, bere ohiko sudur zimurdura, maiz pose bat

besterik ez dena, egun batez erabat ezabatu balu bezala. Eta egun batez ere ni, nire burua barregarritzat hartzeaz gain, aspaldiko partez gazteago eta askeago sentitu egin naiz. Badirudi biok antzeko zerbait espero eta merezi genuela aspaldi-aspalditik, gure ezkutuko topaketok inposatu omen diguten zurruntasunetik ihes egitea edozein maitale bikotek bezala libre eta alai jokatzearren, hots, irri, zirri eta ziri artean, logelako estutasun lizuna lehendabizi ahaztuta benetan zoragarria izan den egun batez gozatuz. Igandean hondartzara joateko proposatu egin diot. Ez dut, beraz, geure artekoaren nondik norakoez hitz egiteko batere gogorik. Egia esan, nik uste oso bekatu larria litzatekeela halako harreman zoragarri bat nire kasketaldi huts bategatik zapuztea.

Debako hondartzan egon gara goiz osoan. Badirudi Laurak dezente gozatu egin duela eguzki galdatan, harik eta larruan kis-kila moduko kolore gorrista bat harrapatu arte. Nik, ostera, toalla gainean etzanda nengoela ohiko biluztasun lotsak kikilduta eta halakoetan denbora-pasa bakarra dudan libururen baten irakurketa astunak gero eta gogaitago eginda, gure artekoaz gogoeta egiteko behar beste asti izan dut. Ez nekien zelan definitu Lauraren alboan sentitzen dudan zoriontasun mota, ez baita inondik inora maitale arteko zoriontasun arrunt eta batez ere errugabeko bat. Esan nezake geurea Moravia edo Borgesen neurriko amodio bat dela, bai aditunkeria galanta, baina badakit alde zurretik gehiegikeria zein handinahikeria ederra litzatekeela, ez baitago geure artekoan ezelako mendekotasun intelektual eta are gutxiago ekonomikoagorik, geure harremana ez baitago inolako interes edo etorkizuneko egitasmo batek eraginda, elkarri eskaintzen diogun askatasuna ez baldin bada halakorik, elkarrekiko libertatean oinarritzen baita gehienbat geure artekoa, bestela agur Ben Hur. Ni ez naiz berriro inorekin ezkonduko edo antzeko loturara makurtuko, eta ez dut uste berak ni bezalako alproja batekin edonolako etorkizunerako planak egiteko oso gogo handia duenik. Amodioak badu, erromantiko babo gehienek uste dutenen aurka, bere muga ezin ageriagoa, hau da: sena.

Eta hau guztia gutxi balitz bezala ere, eguerdiko eguzki izpi kiskalgarrietatik ihesi, eta goseak ere eraginda, herrira sartu gara bazkaltzeko asmoz. Laurak euskal kostaldeko herri guztietariko Deba ondoen ezagutzen eta gainera gogokoen duela aitortu dit. Umetan etorri ohi zen sarri askotan, bere familiak Madril alderantz bizitzera ospa egin aurretik. Debako hondartza, ostera, oso gogoan zuen, txikia, itxia eta txitean-pitean ere itsusia, baina horregatik ere oso xarmanta, benetan atsegina, bere ustez familia giroan egoteko modukoa, edo behintzat orduko egun zoragarriak gogoratzekoa. Gaur egungo Debako hondartza ez da askotxo aldatu, lehen bezain txiki eta itxia baita udalak turismo gehiago erakartzeko asmoz ezinbesteko hobekuntzak egin arren. Eta beharbada egin, egin badituzte, sarbideak zabalduz eta asfaltatuz, aparkaleku gehiago hutsetik sortuz, inoiz ez bezala parkea atondu eta zainduz, bestela gaur topatu dugun jende mordo ezingo zen pilatu sardina lata moduko hondartza honetan. Edonola ere, txingar eginda baldin bazen ere koitadua, hondarretatik altxatu orduko Laurak hitz eta pitz egin du haren umetako oroitzapenak zirela-eta. Baliteke nik nahi eta behar baino informazio gehiago eman didala haren senitartekoei buruz, zeharkatzeke guztiz konforme eta bereziki patxadatsu

nengoeneko ataka ireki berri dit oharkabeen, nire uste eta beldurrez betiko mamuak sartu daitezen oldarrean.

—Me encantaba jugar en la playa con mi padre.

Kontatzen didanez, bere ama erretxinaren etengabeko zelatatik askatu orduko, aitarekin uretan plisti-plasta zein hondartzan zehar lasterka lepo gainean igarotzen zuen goiza. Kontatu ere egin badit hondartza honetan pasatutakoak bere aitari buruzko oroitzapenik gozoenak direla, gehienetan bere aita oso lanpetuta edo egoten baitzen, eurekin lasai moduan egoteko parada bakarra asteburuetan izaten baitzuen, eta beti-beti familia giroan, hau da, aitonaamonen etxean, senitartekoez gainezka eta gainontzeko helduengandik ahalik eta urrunen aldendua ez molestatzearren, jakina. Hori dela eta, badira udako hondartza egunok Laurak gogokoen dituenak, umetan eta herri honetan ezagututako egunik zoriontsuenak begitantzen zaizkielako, gaur gero bere amak inoiz eta inola aitortu nahi ez bezala.

—Debería haber vuelto antes.

Elkarren gorabeherakoez zenbat eta gutxiago jakin, gero eta hobeto, adostu ostean, bat-batean niri bizitzari buruzko hainbat zertzeladak berriro aztoratzen nau. Ez da bere gurasoei buruz egin didan aurreneko aipamen xumea, banekien aita zendu zitzaizela hemen bizi zirela, horrezkero Madrilera alde egin zutela eta gaur egun ama behintzat Espainiako hiriburuaren inguruko txalet batean bizi dela. Eta jakin ere badakit, berak elkar ezagutu orduko hala aitortu egin zidalako, Laura bere amarengandik ihesi bere sorterrira itzuli dela. Jakina, ez zidan ihesaren zergatia azaldu nahi inondik ere. Nik ez nion galdetu berak berdin egin zezan: deus ez galdetzea. Horrela elkarren mamu eta trapu zikinez babestuko ginатеke, horrela ere aitorenpenek sortu eta ezartzen dituzten kateetatik libre egongo ginатеke. Tamalez, noiz edo noiz sortu behar, ez baita posible, nik ere ez nuen sekula sinistu, maite duzun pertsona zeure munduko nondik norakoetatik betiko aparte izatea, zeren bestela zeure maitalea nolabait engainatzen ari zarela gogoan hartzen hasiko baitzara.

—Papá estaría orgulloso de mí.

Eta ez du amore eman nahi. Badirudi saiheska edo bere aitaz galde diezaiodan eskatzen ari dela. Nik ez dut, aldiz, inolako gogo edo asmorik, batik bat hildako aita bati buruz galdezka hasteko, hau da, seguru asko drama izugarri gogor eta mingots bat izan zenaz halabeharrez, are gutxiago, eta eskatutako botila sagardoaren orde, mahi gainean jarrita zalantza barik bazkalordua zapuztuko digulakoan.

Denok dugu zer edo zer mingarri gogoan hartzeko.

Eta ez dut nahi, inondik ere, nik bizitu edota sufritutakoa aita baten galerarekin parekatu. Izan ere, nik ez ditut aspalditik neure gurasoak ikusi, edo bestela esanda, eurek ez naute ikusi gura, edo hori da behintzat sumatzen dudana euren etxean nagoelarik, ez daudela batere gustura ni alboan izanda, badutela beti niri esateko zerbait, nik uste leporatzeko asko eta seguruenez ere beti errieta moduan, zakar-zakar, baina ez dira ausartzen ala ez dute inoiz momenturik aproposena topatzen, orduan atsekabetzen dira eta eurengandik hainbat arinen alde egin nezan irrikan begitantzen zaizkit airean geratzen den ixilune zurrunari erreparatutakoan.

Laurak zain ematen du.

—Noiz eta nola hil zen zure aita?

Orain arteko isilunerik luzeena. Laurak hasperen egiten du. Kontatuko didalakoan nago, bazkalorduan ere negar-zotinka asmatzen dut. Hala ere, espero dut datorrenak gure artekoa nola edo hala indartzea bederen, bestela bai trago txarra, gurea behin betiko apurtzeko momenturik aproposena. Ezin naiz koldarragoa izan.

—Prefiero no hablar del tema, para qué amargarnos la comida, ya antes he estado a punto de ponerme a llorar cuando estábamos en la playa.

Oraingoan ez dakit eskertu behar diodan edo zapuzturik sentitu behar. Ez al dut merezi nire aurrean bere barne kezka edo ezinegona aitortzea. Hori al da gure artekoari ipini dion muga? Zer-nolako zintzotasuna espero nezake bere bizitzaren edozein alde garrantzizko ezkutatu nahiago didan emakume batengandik?

—¿Conoces aquí algún sitio donde se coma bien?

Eta hemengo sagardoa hain mingarratza izanda batere gustatzen ez zaiola bizpahiru bider esan ostean, Asturias aldekoa hamaika aldiz gustokoago duela ikaragarri gozoa egiten zaiolako, benetan freskagarria, botila hustu berri dut bere gustuko jatetxe txukun baten bila azkar joan gaitezen.

—Hemen ez dut batere ezagutzen, baina Getaria aldean badaude, kaialdean bertan, oso jatetxe onak —erdaraz esan nion, baina.

Eta autoa hartzera goazela, herriko plaza zeharkatzerakoan, Laura harri eta zur geratzen da balkoiei begira, zintzilik dauden erretratu erraldoiei, azpian agertzen den pankartari. Erabat atsekabetuta ematen du. Ezta harritzekoa, esaten diot nire buruari, kanpotik etorrita eta antzeko zerbait ikusi ezker, txunditurik geratzea, hau da, ia egunero telebistatik, irratitik edota egunkarietan erakusten dizkiguten bidegabekeriaren egileen aurpegiak heroi modura goraiatuak ustekabearen ikustea. Bertoko askori ere gogor xamar egiten zaigu, nahiz eta geure



garaian, aspaldi-aspaldi neure kasuan, edo horrela behintzat gogoan izan nahi dut, balkoi azpiko heroi harroputz eta bihozgogorron giro berean edo euren borrokan ere parte hartu. Dena dela, eta herri hau ondotxo ezagututa, ezin du inor harritu gaur egun ere hain ugari diren bortizkeria zaleok hau bezalako herri batean duten indarrak. Hau bezalako herri batean edo geure hiriburuetakoz zenbait auzo txikitari badago indarkeria gorapaitu eta lagundu egiten duen hainbat sasikume, basapiztia. Oraindik ere guztiz zitalak direnak eta auzotik eragin ikaragarri handia dutenak, nahiz eta gainontzeko auzoak kontra edo gutxienez zeharo ezberdin pentsatu, hain zuzen ere aurrenekoek denboraren poderioz, hots, bortizkeria mota ia guztien laguntzaz, menperatu eta ixilarazi egin dituztelako.

—Los presos vascos a Euskal Herria, la negociación es el camino para la paz.

Ez dakit zer dela eta, baina oharkabean edo, hau da, Laurak eskatu baino lehenago, pankartaren leloa itzuli diot. Badirudi aho zabalagorik, atsekabetuagorik, eta ezin sinisturik nik esan berri diodanaren erruz. Beharbada pankartaren esanahia jakiteko inolako beharrik ez baitzuen, berak lehenago aitortuta euskaraz hitz bat ere ez jakin arren. Ezin argiago dago edonork erretratuetan azaltzen direnen erakunde armatuaren aldeko laudorioa ala zuribidea ondo baino hobeto asma lezakeela.

Hemengo giroa zer-nolakoa den kontutan hartuz, ikusi berri duenez ez harritzeko aholkatzen, erregutzen diot.

Eskua altxatu dit nire ezpainaren pareraino, isiltzeko agindu gisa edo. Ez du inolako gogorik ikusitakoaz berba gehiago egiteko. Dagoeneko ez da harrituta edo atsekabetuta, orain plazatik zehar haserre bizian ospa egiten du aparkalekurantz.

—...sácame de aquí inmediatamente.

Eguna erabat izorratu delakoan nago. Errepidetik autoz goazela, lehen proposatu egin diodan Getariko jatetxean bazkaltzeko, Laurak ez du txintik ere esan nahi. Areago, badirudi begirada zein gogoia leihatilaz bestaldean galduta duela. Ez dakit zer esan orain arte esandako guztiaz porrot egin baitut. Hala ere, nola edo hala animatu egin beharrian nago, egun guztiz patxadatsua izan behar zuena erabat ez alferrikaltzeko.

Jatetxekoa negar egiteko modukoa suertatzen ari da. Terrazako mahai batean eseri gara. Zerbitzaria etorri zaigu eta Laurari menuetik zer edo zer hautatzeko eskatu diodanean muzin egin dit. Orduan, zerbitzaria aurre-aurrean nuela, ni urduritu eta ezustean, eta Laurari irriño bat eragitearren bakar-bakarrik, ea erreboiloa piszifatoriakoa zen itaundu diot. Alferrik, zerbitzariak sudurra zimurtu eta bere jatetxean arrain guzti-guztiak beti fresko-freskoak eta primerakoak direla agindu egin digu oso modu zakarrez, hau da, bertako jendearen ohiturari eutsiz. Laurak ere jelazko begiratu bat bota egin dit, bere ezerosotasuna ezin ageriago utziz.

Horrezkero ez nekien zer egin edo esan bere oniritzia berreskuratzeko, plazakoaz gertatu eta gero jaso duen ondoezatik ateratzeko, nahiz eta ordura arte hain gogoko eta ohiko zuen irriño xarmangarria bere aurpegian berriro marraz zezan mota guztietakoak komeriak alperrik eta agian oso baldar eta lotsagabe ere asmatzen saiatu naizen. Edonola ere, badirudi isilik ezin egon naizela, eta Laura gero eta gogaituago dagoela ohartuta ere nik barra-barra hitz egin dut edozein huskeriaren kontura, batez ere izkiren, txirlen edota artean ere sumagarria zitzaidan erreboiloaren kontura. Baliteke bazkalordu osoan mahai gainean ditugun plateri buruz etengabe solas egiteko parada ezin hobea izatea, baina oraingo ez dakit zenbat aldiz goraipatu ditudan euskaldunok ustez edo asmatutako saltsa berdea edota Kantauriko arrainen kalitatea gaur egun lekuetatik ekartzen dituztenen aldean. Patetikoarena egiten ari naiz, gogoz gainera. Edozein lelokeriaren bidez eguna zapuztu digun pasadizo ezustekoa saihestearren, geure artekoa bere onera hainbat arinen itzul dadin. Eta nola ez, den-dena alperrik, eta betiko legez nik neuk hanka barruraino sartu dudalako.

—Este país será todo lo desagradable que tu quieras para los que venís de fuera y no conocéis el problema de primera mano, e incluso no niego que pueda haber más hijos de puta por metro cuadrado de lo habitual, pero no me negarás que al menos aquí se come mejor que en ninguna otra parte.

Ez dakit zenbat aldiz damutu behar izan naizen nire berritsukeria inozo-lotsagarriaz, oraingoaz inoiz ez bezala, ostruka bat izan banintz, dagoeneko neure burua Antipodetako zulo batetik aterata izango nukeen. Baina, hala eta guztiz ere, edonor zur eta lur geratzeko modukoa izan da Laurak bota izan didana, ni bezalako ergelak gorrotatzen zituela edo halako beste perla mingarriago batzuk ere bai. Harrigarria orain arte ohekide bederen izan dudan emakumearen ahotik entzunda. Ni ezin sinisturik nago, eta nahiko suminduta ere, halabeharrez. Badakit Debako plazan ikusi berri duguna bidegabekeria galanta, samingarria, dela, horretan harekin bat nator, zeharo, eta batez ere sumatuta, ondotxo suma baitezaket, kanpotik etorri berria den norbaitentzat ezusteko handia jaso izana. Dena dela, eta hemengo giroa zein giza paisaia ala pasaia morala zer-nolakoa den ondo baino hobeto jakinda, ikusitakoa egun bateko lorea ez dela, azken urteotako gehiegikerien beste adibide bat baino, Lauraren jokaera oso iraingarria begitandu zait, batez ere orain arte aurre-aurrean duen gizabanakoarekiko, ni ez bainaiz ezeren errudun, ez baldin bada askotxo pentsatu barik ziplo esandako zerbaiten erruduna, haren ustekabekoak eraginda hain zuzen ere. Ez dut uste, beraz, halako tratu txarra, jipoia, merezi dudarik, ez baitzen nire asmoa, inola ere, bera aztoratu izana, hemengo giro politikoa, nire ustez guztiz ustela izanda ere, nolabait azaltzea, eta den-dena bera kostatzen ahala kostatzen lasaitzearen. Tamalez, ezin izan ditut hitz egokiak topatu, bistan dago ez naizela aparteko hizlaria ez badin bada lelokeriak botatzeko, esandako apurra arineketan izan dela, ez zegoela nire aldetik inoren jokabidea zuzitzeko asmorik. Eta hala eta guztiz ere, ergela esan dit, hamaika aldiz gogoz eta bihotzez maitatu izan dudan emakumeak iraindu ez ezik, nik, inola ere laguntzen eta gainera biziki —eta berak ez dakien motibo zehatz askorengatik— gaitzesten dudan zerbaiten errudun sentiarazi egin nau. Eta ez da bidezkoa, berak ez du inor epaitzeko

eskubiderik, are gutxiago bene-benetan ezagutzen ez duen norbait, maitatzen hasi den norbait. Jakin beharrea nago bere jokaera uzkur eta zakar honen zergatia.

—Cualquiera diría que han matado a alguien de tu familia.

Ederra egin dut, orain bai asaldatu zaidala, bazkalordu osoan berba egin du bigarren aldiz ez beste, eta oso modu zakarrez ere, ea bere biziaz zer nekien galdetzeko edo zergatik azaldu behar zidan berari bakarrik ardura ziona ala ez. Ederto ba, nik uste dut orain ulertu dizudala, isilduko naiz, eta ez dut berriro inoiz asaldatzen duen gai hau jorratuko. Gainera, eskubide osoa du isilik egoteko, ni neu isil nadila eskatzeko, bere bizitzaren zenbait atal ezkutatzeko, atal guztiak gura izan ezker. Azken buruan, maitale nauka bakar-bakarrik, pasa-denbora hutsa, jostailu kaskarra, hamaika aldiz barkatzeko eta jatetxeraino laguntzeko arrenka eskatu ostean, eta bazkalordua bukatu arte hitzerdirik ere esan gabe, egundoko kontua ordaindu, eta jarraian bere izeko-osaben etxe ateraino betosko eramateko gidari hutsa.

## VIII

Gaur igandean Bilbora itzuli naiz, egun osoan nire hiru urtetako semearekin jostetan zein patxadan egoteko asmoz. Gaur ere, eta lehenbizikoz, ez zait batere inporta, haurrarekin bildu aurretik, halabeharrez igaro behar dudan trago txarra nire emazte ohiaren etxera heltzerakoan. Gaur badut burua beste inon, Laurarengan hain zuzen ere. Autopistatik behintzat nentorrela ezin nion atzo gertatutakoari buruz gogoeta egiteari utzi. Geure lehenengo errieta, edozein bikoteren modura, alde edo moldez saihestu nahi eta behar genuena, eta horregatik ere elkarri agindu genion gure arteko betebeharrak zein hitzarmenak gutxienera eramatea, gehienbat sexura eta kito, zertarako besterik, batez ere gureak inolako etorkizunik ez baldin bazuen, gure artekoa behin-behinekoa bakarrik baldin bazen. Alde horretatik, eta nire emazte ohia- rekin bizitutakoa, edo hobeto esanda, harengandik espero eta azkenean topatu nuena oso kontutan izanda, hau da, berari bakarrik egokitzen zitzaion bizimodu guztiz konbentzional eta batez ere zeken bat, hain zuzen ere ni bezalako koitadu batek inola ere ezin eman ziona, Laurarena aldiz bikaina da, agian larregi, nirearekin inola ere bat ez datorrena. Esan liteke geure harremana bikain bilakatzeko saioan hil garela, elkarri hamaika promes eta asmo egin eta gero ezinarekin topo egin dugu. Ez da posible elkarrekin egonda eta ezer ez sentitzea, ez da posible ere elkarren maite izatea eta norberarena existituko ez balitz bezala jokatzeko. Ez da posible gure arteko itxurakeria hutsa izan baita hasiera- hasieratik, bizi nahi genuen fantasia bat, adinarengatik inola ere ez dagokiguna, nahikotxo koskortuta baikaude nerabe moduan jokatzeko. Alde horretatik, ez nau batere harritzen atzokoak, noiz edo noiz jazo behar, gutxien espero nuena, ostera, politikaren kontura zer edo zer geure aurreneko errietaren motiboa izatea. Ez nuen espero eta, egia esan, zeharo aztoratu egin nau. Beste behin, eta batez ere dagoeneko aspaldi ahaztuta nuen gai ustela izanda, berriro politika nire bizitzan sartzen da den-dena izorratuz. Ez dakit zer dela eta Laura hainbeste atsekabetu zitzaidan, zertara zetorren Debako plazako erretratu zein pankartaren kontura eztabaidatzeko gogoia. Saiatu, saiatu nintzen asmatzen, baina ezin. Nire irudikoz gazteegia zen, eta gainera bere urte gehienak Madrilen bizitakoak, euskal gatazkarekin zerikusirik zuen zerbait beti gaitzesgarri/gogaikarri kontatzeko prest. Dena dela, eta badaezpada, nik itaundu egin nion zer zeritzon nahaskeria nazkagarri guzti horri, haren atsekabearen benetakoa zioa jakitearren. Ez zidan tutik ere esan, lehen baino bezkoz kodunago agertu eta etxera zuzen zuzen eramateko eskatu egin zidan soil-soilik. Txunditurik nengoen. Ezer kontatzeko gogorik ez zuela asmatuta, eta batez ere hori ez egiteko eskubide osoa zuela onartuta, nola edo hala, baina inoiz ez serio-serio, gurearen hasieran hitzartutakoaren arabera, gehiago ez akuilatzea erabaki nuen. Hori zela eta, eta ditxosozko gaia alde batera utzita, bazkariaren kontura zenbait txotxolokeria esan eta bera berriro ere izugarri asaldatu egin zitzaidan.

—Me repatean los idiotas que tiran todo el rato de tópicos.

Zatarkeria galanta, nik inola ere merezi ez nuen mesprezu mingarria. Ez nuen Laurarengandik espero eta ez nuen merezi hain erantzun zakarra. Tira ba, geure arteko ageriko adin eta klase ezberdintasunak kontutan hartuta —ez dakit zenbat aldiz esan diodan nire buruari ea zer demontre egiten dudan nik bera bezalako señoita larrusendo batekin tratuetan— badirudi noiz edo noiz errieta izan behar genuela, nahiz eta hamaika aldiz gure artekoa hain kitzikagarria, hain bikaina, hain behin-behinekoa zela elkarri esan. Dena dela, ageri da atzo arratsaldean egotzi egin nion zerbaitegatik asaldatu zela, hots, kezka zuela nik esan niezaiokeena, ez ninduela ohaide begiko eta berbalapiko bat baino izaten.

—Aitaaaaaaa, begira zer egiten dudan!!!

Enekok askatzen nau zeharo arduratuta nauen burutazio oinaztatutik. Enekorri esker nire bihotzeko kontu txatxuok ez dutela zentzu handirik momentuan konturatzen naiz. Eneko da arduratu behar nauen bakarra, guztiz gogorra baita ni bezalako aita banatu eta bakarzale batentzat, bere amarekiko tirabirak direla-eta, bere semearen arreta zein maitasun osoa bereganatzea, suspertzea, ziurtatzea, hau da, nitaz inoiz eta inola ahaztu ez dadin egin beharreko guztia. Laurarena, beraz, behar den lekuan kokatu beharrean nago, gure artekoa denbora-pasa hutsa hasi zen eta horrela iraungo ote. Eta aurrera joateko modurik ez baldin badago, zer egingo diot, ez da nire lehenengo porrota amodio kontuetan izango, ez da ere segur asko azkenekoa, halakoetan amore emateko inolako asmorik ez baitut, oraindik oso sasoiari nago sexuari bizkarra emateko. Laurarekikoa bukatu beharrak, aldiz, pena ikaragarria emango lidake inolako dudarik gabe, aspaldi ez baitut ezagutu bera bezalako emakume jator eta bizkorrik, sarritan hain maripurtzila/harroputza/ipurterrea izanda ere. Baina, ez naiz ni zinez komeni zaion gizona, ez behintzat etorkizunerako planak egiteko beste, nik bere sasoiari Edurnekin egin nituen bezalakoak, bizi osorako maitasun ezinezko eta ia-ia betebeharrezko hura, ezerezean geratu zena, gaztetako amodio zoro eta luze guztiak geratu ohi bezala. Laurari hots egingo diot atzo arratsaldekoaren kontura, egin omen nion kaltea edo zer izan zen zehatz-mehatz ez jakin arren, barkazioa erregutzeko, berriro elkar ikusteko gogoia duen nola edo hala asmatzeko, azken hau datorren asteburuan Toulouse alderaino osterara polita bat proposatzeko asmoz.

Astelehenetan, eta gizakume gehienon antzera, guztiz gogaikarria, benetan oka egiteko modukoa, begitantzen zaidan bulego zein lan batera itzuli beharra edota nire bizitzari buruz hartutako erabakien ondorio zalantzakorrak edo garratzak direla medio —horra hor nire semearena— ez naiz izaten oso pozik, ez eta nire lankideek espero bezain berritsu ere. Gaur, aldiz, eta beharbada atzo ere izugarri ondo pasa egin nuelako Enekorekin; hau da, harekin nengoela ohiko malenkonia gabe eta baita betiko eta ageriko leloagatik ere, nire ondoan egunez egun koskortzen ikusiko ez dudana ondo baino hobeto dakidalako. Atzo igandean eta aurreneko aldiz goxatu egin nuen nire semearekin aspaldi hartutako erabakiaren damurik gabe, bai goizean Eneko ibai bazterreko ibilbide berri eta txukunetik behin eta berriro jauzika zein txintxilipurdika zeharo axolagabe zihoala, bai eguerdian Alde Zaharreko sagardotegi

erraldoi batean hain gustuko duen bakailao tortilla bazkaltzen ari ginela, edota arratsaldean Casilda Parkeraino eraman nuela eguneko azken jauzi zein txintxilipurdiak egin zitzaizkan bere amarenera otzan-otzan eta osoro lur jota itzuli aurretik. Banuen, gainera, gainontzeko igandeetan baino pozagorik egoteko beste motibo sakon eta ia bat-bateko bat: sekula damu izango ez nukeen erabaki bat.

Bulegora heldu eta Kike ezustean harrapatu izan dut nirengan guztiz ohiz kanpoko den agur ozen eta irribarretsu batez. Zain nintzen, “zorionak, asteburu honetan behintzat eta aspaldiko partez txortan egin duzu” noiz erantzungo zidan. Baina ez, kale egin dut, badirudi Kike ere ikaragarri irribarretsu, lasai eta batez ere arduragabe dagoela nire bizitza sexualari buruzko berririk gabe.

—Aspaldiko! Atikoaren jabea uste baino lehenago bueltatu berri da, etzi bertan sinatu genezake alokairuaren kontratua.

Oraingoan ni naiz ezustean benetan harrapatuta dagoena. Ez nuen inola ere espero. Bai sorpresa handia, ezatsegina! Kaliforniatik bueltatu berria!!! Zer dela eta? Zertarako? Laurarekikoa zapuztearren edo? Zentzugabekerietan hasi naiz Kikeri guztiz faltsua den zoriontasun neurrigabeko aurpegiera bat marrazten saiatu eta gero. Gorroto bizia diot oraindik ezagun ez dudan arkitekto harrosko lukurrero horri, egia esan, oraintxe bertan akabatuko nuke. Baina, ez dut behin berriro nire eskuak odolez zikintzeko motibo apartekorik, zer axola dit niri Laurak hain gogoko eta zain duen atiko alu hori biok uste eta agian nahi baino lehenago eskuratu izanak. Hala ere, ezin dut gogotik kendu albiste txar edo dena-delako honek gure artekoari nola edo hala kalte egingo diola, orain ni bere bizitzatik behingoz eta betiko ezabatzeko aitzakia bikaina izango balu bezala. Edonola ere, eta atzo hauek bezalako hainbat gogoeta inozo eta zentzugabeko egin eta gero, nire buruari Laurarekikoa lasai moduan, hots, etorkizunerako kezka handirik gabe gogoan hartzeko agindu arren, oso nabarmena da ez naizela batere ziur nire benetako sentimenduetaz, beharbada orain arte inoiz eta inola nahi izan ez dudalako. Agertu da ezustean geurea popatik hartzera joan dadin zirrikitu bat eta ni behingoz ikaratu izan naiz. Nor nau Laurak, pasa-denbora hutsa, etxebizitza saltzaile gonazale lizun bat? Zergatik eta batez ere zeren beldur ote naiz?

—Badakit hau zure lehenengo salmenta dela, horregatik mesede bat egin nahi izan dizut berak emandako datuak kontratuan gaineratuz.

Eskerrik asko esan behar, ez da ezer apartekorik, zaila, baina bai eginkizun guztiz aspergarria. Horrexegatik ere, betekizun alu hori gaintetik hainbat arinen kentzen lagundu izanagatik, eskertu behar nioke nire lankide txit eskuzabalari. Egia esan, hau da egin didan bigarren faborea Lauraren kontura. Hau da, bestalde, guztiz ezezagunak zaizkidan nire bezero zein maitalearen izen-abizen oso-osoak lehenbizi eta ozen-ozen irakurtzeko aparteko aukera.

—...Ullaga, María Laura Ullaga Ruiz???

— Ezagutzen?

— Ze ba?

— Nik uste bere aurreneko abizena orain dela urte mordoia ETAkoek garbitu egin zuten hiriko politikari famatu batena dela. Ez omen da oso deitura arrunta. Izan al liteke honen senitartekorik?

— Ez, ez dut uste.

## BIGARREN ZATIA

I

Goizean goiz jaiki eta balkoiko errezelak bildu orduko nire begi aurrean zabaltzen zaidan egun lanbrotsuak brast egiten dit. Ez nuen uztail aldera halako eguraldi kaskarra espero, Torrevieja bezalako Mediterraneo kostaldeko hiri bateko uda hasierari dagokion bero sapa itogarria baino. Baina, serioa izan nadin, ez nago hemen eguraldiaren onurengatik hain zuzen ere. Ihesi etorri naiz. Ezin nuen nire hirian iraun. Laurarena gertatu eta gero jasanezina, benetan samingarria, izango zitzaidakeen berarekin kalean ustekabez edo topo egin izana. Zer esango niokeen? Sentitzen dut, baina nik erailtzen lagundu nuen gizonaren alaba izanda ezin dut zurekin inolako harremanik izan? Tristeia, oso, eta batez ere barkaezina, zeharo. Enetzat behintzat sekula ez da ezer mingarriagorik izan. Laurarekikoa ez zen egun bateko lorea, denbora-pasa moduko txorta jotze samur bat edo, nire bakardadea-en betegarri. Inondik ez, Laura maite dut, biziro maite gainera. Horrenbestez, emateko ez dudan zuribide bat, arduragabe, gupidagabe ere bai, ez asmatzearren, ezatsegina baino mingarriagoa izango zitzaidan balizko topaketa bat ahal nuen modurik erabatekoenean saihesten erabaki egin dut, hau da, berak nire iraganaren nondik norakorik ilunena ezagutzeko nolabaiteko paradarik izan lezakeela erreparatu dudan bezain laster.

(Beti ihesi, beti noraezean, beti okerreko bidetik).

Egia borobila da. Horrela behintzat aitortu behar diot nire buruari, ezin baitiot honi nire iheskorkeria inola ere ezkutatu edo zuritu. Ondotxo dakit ihes egin niela, bai gaztetan gutxienez hanka hondoraino ez sartzeko aukerari eta, gainera nire senak aholkatzen zidanari muzin eginez, bai ezkondu eta gero nire familia berriari gogor eustearren ezinbestekoa zitzaidan beteki- zunari. Horra hor berezko etxekaltearen patu beltza.

—Ez dakizu zeure buruari aurre egiten, ez duzu inoiz jakin.

Baliteke, horrexegatik ere nire lankide gogaikarriari esker Lauraren izen-abizenak igarri orduko hanka berriro barreneraino sartuta nuela asmatu nuen. Eta hain alperra naiz, koldarra hur-hurrean, ezen errealitate gordinari aurre egin baino lehenago behin berriro ihesi egiteari ekin nion.

—Badakit lanean hasi berria naizela, baina oporrak behar ditut.

Nagusi dudan osabak, alde batetik txunditurik, eta bestalde jakinaren gainean ere —baina ez Laurarenarengatik, aspaldi-betikoagatik baino eta batik bat emazte ohiarekiko gorabeherak



betiere aitzakia bikaina izanda— eskatu bezala hilabete eman dit opor. Zorionez, eta bere agindupean hilabete ez egin arren, ez dit erreparo handirik ipini motibo pertsonalengatik zela esandakoan, lur jota nengoela Unairen kontura emazte ohiarekiko tirabirak zirela medio. Ez hain gezur zuria Edurnerekin etengabeko liskarretan egoten bainaiz, beti Unairen gorabeheren kontura; ezin ageriago baita nire semeaz goza nezan mota askotako oztopoak barra-barra asmatzen dizkidala, banatu eta gero ni erresumintzeko geratzen zaion iskilu bakarra eta ziurrenik latzena ere bai. Hala ere, eta Laura ezagutu arte nire semearekiko arazoak zirela-medio guztiz abailduta ibili arren, ez da Edurnerekin dudan etengabeko borroka nire osaba lehendabizikoz engainatzera bultzatu nauena. Ezin nion, ordea, osabari egia osoa esan, aspaldi dezente kostatu egin baitzitzaien bere iloba kartzelatik pasatu izana onartzea, berdin zion motibo politikoak zirela edo dena-delakoak. Ez nion iraganari beste ate berri bat ireki nahi, beraz, hobe gezurretan zentzugabeko aitorpen zalantzarrietan baino. Ez nion inori inolako azalpenik eman nahi. Bere garaian eskatu adina eman banuen, senitartean zein lagunartean, egia esan nazka-nazka eginda bukatu nuen, batez ere nik neuk nire buruari eman ohi nizkionekin. Erabaki nuen berriro bat ere ez ematea, ez nire buruari, ezta inolako eskubide barik nigana azalpen bila etorriko zen inori ere. Itun hori Laurarekin aspaldiko partez apurtzekotan egon nintzen, baina dagoeneko beranduegi omen da, ez da bidezkoa berak nire lankide gorrotagarri eta berritsuarekin mintzatu eta gero asmatu egin ote duena, nik berandu eta ustez behintzat behartuta aitortzea, horrezkero ez omen du inolako dudarik izango nire berezko zitalkeriari buruz; aurrenez bere aita garbi zezaten lagundu eta azkenez alaba bigarren aldiz eta moduz, nolakoa gainera, izorratu.

—Errezelak berriro itxi beharrean nago.

Ez nekien nora joan, nire burua non sartu, hau ere noiz arte ezabatu, eta osabak berak Torreveijan duen apartamentua eskaini egin zidan nire ustezko zein ezohiko oporretarako. Aspalditik apenas erabiltzen eta batez ere inbertsio modura Mediterraneo kostaldean erosi zituen apartamentuetariko aurrenekoa baita, Torreveija oraindik modan zegoela, Benidorm, Torremolinos, Salouren eta enparatuen ondoan. Gainerakoak geroxeago erosi egin zituen, Ibiza edo Marbella bezalako eta ustez behintzat itxurosoagoak diren beste herri ezin zatarrago batzuetan.

—Hutsik topatuko duzu.

Eta huts-hutsik dago, bai horixe, edo gutxienez ezinbestekoaz bakar-bakarrik horniturik, egongelako mahaia zein aulkiak, logela bakarreko ohea eta egongelan bertan dagoen sukalde purtzil eta ikaragarri zikin bat. Bistan dago ni baino lehenago nire hogeitau urte inguruko lehengusina egon zela bere kuadrilakoekin, hau da, triskantza eta herdoila edonon, eta baita berak ondotxo bazekiela ere nire izeko-osabek Torrevejako apartamentua erdi ahaztuta edo zutela, horrez gain hamaika opor-leku dute-eta Espainako mediterranean kostaldean barrena. Hala ere, gaitzerdi, ez baitut ezer garbitzen hasteko batere gogorik. Oporretan nago, gainera

oso opor bereziak, batez ere bat-bateko zein ustekabeak, eta nik behintzat ikaragarriko errespetua zor diot opor kontuari, batez ere gartzelatik irten eta hor barruan alperrik galdutako urte guztiak berreskuratzeko asmotan edo lanean jo eta ke, hau da, edozein ordainpeko zereginetan, buru belarri ekinez denbora hausnarrean alperrik ez galtzearren. Esan liteke hauek direla nire benetako aurreneko oporrak infernutik igaro ostean, nahiz eta zertaz ari naizen, hots, gartzelakoaz ala agian ezkontzakoaz ere, argitu nahi ez dudana. Bai tristea aurrean zabaltzen zaidan panorama, iraganarekin bueltaka behin eta berriro hastekotan, batez ere ezagutu ditudan infernuetako gomutetan murgiltzen hasten baldin banaiz. Ez naiz etorri deus gogora ekartzera, ahaztera baino, eta ez da hain zuzen ere nire iragan negargarri horretako porrotak burutik erauzi nahi ditudana, aspaldi ere erabat ezabatu baintuen gaur egun bizian jasotako kolpe zein usteen poderioz bilakatu naizen gizabanako ezin atsekabetuagoarekin zerikusirik ez duten aldetik, oraingo hau baizik.

—Laura, beti izango zaitut gogoan.

Edonola ere, espero dut berak nitaz lehenbailehen ahaztea. Merezi du Laura gaixoak, batez ere nik egindako zauri handia ahalik eta lasterren senda dakion. Eta berriro argitu beharra, ez naiz bere aitarenaz ari, nik uste orduz geroztik nire pekatua sobera ordaindu badudala, jende asko, ez baldin bada gehiena, aurka izanda ere, biok bakarrik hauspotutako txinparten artetik sortu zenaz baino. Badakit, azken egunotan biok asmatu genuelakoan, gure artekoa ez zela denbora-pasa hutsa, lizunkeriak eragindako zoramen arina, atsegina baino, biok guztiz kontrakoa gutiziatu arren. Besteak beste, eta berak ere behin baino gehiagotan ia ahapeka eta ahalketsu esan bezala, nirekin txortan etengabe iharduteak inolako konpromezurik suposatzen ez ziolako, ikaragarri lasai bizi zitekeen ni gabe, alajaina! Tamalez, eta betiko legez kasik, beranduegi konturatu egin nintzen.

—Berandu, beti berandu...

Berandu asmatu nuen emazte hartutako emakumeak kartzelako urteak pasa ahala ni maitatzeari utzi ziola. Berandu ere konturatu egin nintzen nire orduko borrokaideek gogoan zuten bidegabekeriaz. Berandu asmatu nuen nik egindakoa. Berandu, beti berandu eta ezin okerrago.

Baina ez da nik aspaldi egindako okerrez hitz egiteko momenturik egokiena. Badira hamaika gauza premiazkoagoak, besteak beste apartamentua ahalik eta txukunen eskobatzeta eta baita amaraunez mukuru dudana hozkailutxoa behar bezainbeste hornitzea ere. (Egun osoan apartamentuan potrojorran geratzeak zoratu besterik ez nau egingo).

Ez ditut Torrevieja bezalako hiriak batere gogoko. Itzelezko zatarrak eta aspergarriak ez ezik, arrunt etsigarriak ere iruditzen zaizkit. Gainera, ondo baino hobeto ezagutzen ditut. Txikerretan, hau da, hamabost urte bete arte edo, nire gurasoek Salou alderaino ia arrastaka

eraman ohi ninduten-eta. Bertan ikaragarri aspertzen nintzen, halabeharrez, ez bainuen norekin jolasean egin eta banengoen hondarrezko gaztelutxoez zein aitak uretan egiten zizkidan aguadilletaz kokoteraino. Horrez gain ezin nintzen nekez nire gurasoengandik metro eta erdira aldendu ere, zeren saiatu bezain laster, batez ere uretara sartzeaz nengoela edo hondartzako beste haur batzuekin solasean, aita gainean nuen ia ileetatik hartuta eskuoihalerantz eramateko asmoz . Eta ez baldin bazidaten uretan nire kasa lasai plisti-plasta egin nezan uzten, are gutxiago arratsaldeetan hirian zehar bakarrik ibiltzea egiazko ala alegiazko lagun bila. Gatibu ninduten bizpahiru astebetetz, eguzki zein errieta galdataz, gehienetan guztiz arrotza, meharra eta itsusia begitantzen zitzaidan apartamentu batean. Gorroto nien udako oporrei Salouko egonaldien erruz, gozatu beharrean nire gurasoen maniak zein txepelkeriak nozitu behar nituen eurrez euren bizitzaren hainbat arlotan bezala baina agian gertuagotik inoiz ez bezala. Udako oporrak hitsak ziren, batez ere haiek guztiz kontrakoa izaten saiatzen ziren heinean, ni nola edo hala entretenitu nahian, gizajoak. Ni Gasteiza ahalik eta lasterren itzultzeko irrikan nengoen eta kito.

Eta orain kalera, edo hobeto esanda urbanizazioaren aurrean dagoen basamortura, irten berri naizela ezin argiago dut. Zer egingo dut hemen, egun osoan potrojorran? Aspertuko naiz ziur asko. Nire osabaren eskaintzagatik izan ez balitz, ez nintzatekeen etorriko. Eta hala guztiz ere, inguratzen nauen guztia, hau da, apartamentua dagoen eraikin multzo erraldoi, hits eta modaz zeharo pasatutakoa, honen aurrean zabaltzen den hondartza kaxkarra edota hiriraino doan errepideak zeharkatzen duen alderdi idorra, den-dena ikaragarri itsusia, tristea, etsigarria begitantzen zait. Eta eskaileretan behera noala, bai hormetan zein sabaian antzematen ditudan hezeuneetan erreparatzekotan, nola ez pentsa hemen geratu bitartean tristura zein egonezina nagusi izango zaizkidala edonoiz eta edonola.

Hona etortzeko asmoa oso argia zen: Laurarekikoa nolabait ahaztu edo gutxienez ahal nuen neurrian hoztu beharra.

Hirian liburu pila bat eta telebista txiki bat erosiko ditut, bestela...

Bestela egun osoan leihotik zehar hain aspergarria deritzodan hondartzara begira. Eta udatea hastapenetan dago, laster hau guztia udatiar petralez beteko da, Salouko opor egunetan bezala sentituko naiz: nazka-nazka eginda.

—¡Buenos días!

Kalera irteterakoan topo eta oharkabean bultzatu egin dudan andreak, haatik, hagiz gizalegetsu agurtu egin nau. Ozta-ozta ez dut lurrera bota, nire gogoetak gora eta behera itsumandoka nindoan-eta.

—Disculpe que la haya empujado, no sé en qué estaría pensando. (baina ez da egia, ondo baino hobeto badakizulako nor zenuen gogoan)

Andreari bizkarra eman berri diodala, buelta erdi eman eta ea nire erosketak non egin ditzakedan galdetzea otu egin zait.

—Hay un colmado pequeñito en el edificio de enfrente, pero me temo que los dueños sólo entienden el inglés.

Ingelesez nola edo hala moldatzen naiz, baina ez dut inolako gogorik Torrevieja bezalako espainiar herri batean gaztelera ez den beste hizkuntza batez iharduteko; ezta, noski, nire printzipio aldaezinetako bat, erosotasun hutsa baino, pragmatismo hutsa. Bestalde, ezinbesteko horniketaz gain telebista txiki bat eta libururen bat ere gogoan baditut. Beraz, merkatalgune handi baten premia dut ezinbestez. Herritik gertu samar Carrefour mardul bat dudala azaldu dit dagoeneko berrogeita hamar, edo gehiena jota hiruhogei urte inguruko emakumezko altu, argal samar eta sudur ezin arrano eitezkoagoa ziplo begitandu zaidanak.

—Me pregunto si sería abusar mucho de usted pedirle que me trajera...

Telebistatxoa, liburuak eta gutxienez bi astebeterako jatekoaz gain dozena erdi bat edalontzi erosi behar dut nire eraikinean bertan eta berak azaldu bezala hilabete amaiera arte bakar-bakarrik bizi den emakumearentzat. Badirudi bere apartamentuan zituen guzti-guztiak puskatu egin zaizkiola; hain baldarra da eta, koitadua.

Nire autoz hiritik oso urrun ez dagoen delako merkatalgunerantz noala, eta leihatilaz bestaldean agertzen zaidan inguru huts eta hitsa batere erakargarria ez zaidan aldetik, nire buruari itauntzen diot ea non demontre dagoen Mediterraneo aldeko eguzki argitsu eta pozgarria. Eta galdezka hasi naizenez, ba ote da aparkaleku batekoa baino bakardade mingarrienik? Horra hor, bere hirian beti zain eta itxaropentsu duen ama maitagarri batez aparte, pasabideetan zehar orga bati eutsita doala, munduan inor ez duen gizon bakartia. Eta ezin bakartiagoa gurditxoan bota berri duenaz erreparatu ezker: izozkiak eta garagardoak. Non ote dago bere burua aparteko mokofintzat hartzen zuen gizona, ala beharbada tripontzi garbia zena soil-soilik. Laurarenaz geroztik ez dut goserik, aurrera jarraitzekoarekin nahikoa dut. Badirudi ez diodala jateari gozatzeko inolako paradarik eman nahi, nagoen bezala egonda peka-u moduko zerbait izango zelakoan edo. Beste hainbeste suertatzen ari zait asteotan denpora-pasa modura edo egiteko gogoan nituen ihardunekin hondartzara oporretan joateko parada izan orduko, besteak beste, eta beti eguraldiak aukera emantekotan, hondartzan eguzki galdapean etzatea edo agian ere submarinismo egiten saiatzea, supermerkaturan bertan eskolak eskeintzen dituen iragarki bat ikusi egin dut-eta. Edozein zereginetan behar beste denbora pasa arte. Dena dela, alde batetik hain etsigarria, eta bestetik hain atsedengarria ere den udatiar herri dekadente honetara iritsi, apartamentu aurreko hondartza kaxkarra ikusi eta

goizetik nagusitu diren hodei beltzak sumatutakoan, nolabait edo, ezertaz ez gozatzeko aholkatzen zidan zerbait omen dago. Izan ere, ez dut inolako eskubiderik bizitzaz gozatzeko harik eta Laurari egindako samina zeharo sendatu arte. Bai arraroa pekatuarekin bat-batean dudan erlazio bitxi hau, batez ere nire etxean oso fededun sekula izan ez direna kontuan hartuta edota ikastolara aldatu aurretiko fraile-ikastetxe batean umetan soilik hezi naizena, gaur egungo gure ikastoletako irakasle super jatorrak eta ikaragarri aurrerakoiak ez baldin badira gehienbat praka ala gona azpian sotana daramatenak, hau da, arestian ez bezala, fraileetxetako sotanen azpian prakak eta gonak zeudela ezinbestean. Airean dago, beraz, nire burua oinazetzarren erabiltzen dudan hutsetik asmatutako pekatuaren kontzeptu berri hau. Ez da makala, ez, kitatu behar dudan hobena.

(Ez dira ere makalak hona etorrita egin dudan zentzugabekeria zuritzeko egiten ditudan saioak)

—No sabe cómo le agradezco el favor que me ha hecho..

Ez da horrenbesterako, baina biok ondotxo dakigu gizalegezko hitz hutsak direla. Jakin ere badakit erosi dizkiodan edalontziak ez direla oso kalitate onekoak, idoro ahal izan ditudan bakarrak baizik. Berdin dio, bere senarra iritsi orduko Orihuelako Eroskiraino laguntzeko eskatuko dio. Bertan seguru asko nahi beste edalontzi topatuko ditu. Ondoren, eta inork aldeztu aurretik galdetzeke, bera euskalduna dela aitortu eta Eroski gustukoago duela azaltzen dit. Nire aberkideen egiazko zein bromazko txobinismo inozoarekin topo egiten dudan guztietan bezala, ezin dut nire aurpegitik ustez edo errukarria den irribarretxo bat ezabatu.

—La entiendo, yo soy de Vitoria y sé perfectamente que no hay como un Eroski para que le cobren a uno casi el doble de lo que le costaría el mismo artículo en cualquier otro establecimiento.

Barre egiten du. Gaitzerdi, bere adineko andreekin ezin da inoiz asmatu zirtoa nola hartuko dizuten txantxetan edo seriotan, maiz belaunaldi arteko etena umorean inon baino ageriagoa baita. Nik, aldiz, txantxak berehala, ziplo, edo gutxienez beti irrifarre xume batez, harrapatzen dituzten gizabanakoak izugarri estimatzen ditut, egia esan estimatzen ditudan bakarrak.

—Oiga, no diga esas cosas que yo soy del Alto Deba y ya sabe usted lo que eso significa si hablamos de Eroski, Fagor, La Laboral, Lagun Aro y similares —nik uste andere honen irrifarrea aspalditik ikusi eta sentitu dudan gauzarik ezti eta hunkigarriena dela.

Txantxiku dut emakumea, baina aspalditik nire hirian bizi dena, senarra Cegasako arduraduna baita. Dena dela, bere herritik kotxez orduerdi eskas-ekasera. Ez dakit zer dela eta, baina ustekabeen edo, eta batez ere buru buztanik izaten ez duten ohiko topikoei eutsi egin diet galdetuz ea nire ikastolakide ohi baten guraso oinatiarrak ezagunak zaizkion.

—Ez dakitt ba, ez dakot oin goguan — nabari zaio ez ezagutzeak aztoratu duela — Penia emuten dost ez jakitiak, geure alabia be ikastolara fan dalako, Olabidera.

Ni ostera Duranakora joan nintzela erantzun diot. Dena dela, gurea bezalako hiri txiki eta itxi batean ez litzateke batere harritzekoa nire adinekoa gutxi gora behera omen den alaba ezagutu izana gaztetan. Nik dakidala Gasteizko ikastolakumeen arteko harremanak oso hestuek izan baitira betidanik, batez ere BORREROAK BADITU MILAKA AURPEGI nire garaian oso gutxi eta are bitxiagoak ginen aldetik, gehienetan kirol zein taberna giro bertsuetan ibiltzen ginen elkarren ondoan baskoena egiten, hau da, oso noizik behin eta beti kanpoko jendearen aurrean euskeraz parra-parra eta ozen-ozen egiten. Baliteke, beraz, bere alabarekin hor nonbait eta nolabait ere topo egin nuela nire ikasle garaian..

—Irtati Madinabeitia.

Ideiarik ez. Madinabeitia oso deitura arrunta da Gasteizen. Nola gogoratu ikastolaren garaiko lagun edo ezagun guztiak. Bestalde, gu bezalako ikastolakumeak izanda ere, nire lagun giroan ez genituen Olabidekoak askotxo estimatzen, EAJkume zein pijo hutsak begitantzen zitzaizkigun-eta.

—Edonola ere, nire auzoko jendearekin tratu handiagoa nuen.

Jainkoa ala dena-delakoari esker, eta akaso andreak dagoeneko apurtxo bat aztoratura nagoela atoan somatu duenez gero, elkarri agur esateko ordua iritsi dela erabaki omen dugu biok batera eta ia ezustean. Beldurrak nago nire sudurra gehiegitxo zimurtu ote dudan, ez dut oraingoz ezagutu dudan auzoko bakarrarekin inola ere zakar jokatu nahi ere. Ez du merezi, ez dit inolako motiborik eman, nire ustez orain arte esandako guztia gizalegeak eraginda izan da soil-soilik. Aitzitik, azalez oso emakume atsegina da eta zinez estimatzen dut aspaldiko partez norbaitekin hitz eta pitz egin ahal izatea lasai asko.

—Parkaidazu, mutil, kontakatillu edarra inda nau ni. Bat-batean, ustekabeen ere, eta batik bat inolako beharrik gabe, aiko-maiko.

—Ez kezkatu, mesedez, ez dut inor nire zain, bakarrik etorri naiz.

Baina, zergatik edo zertaz desenkusutzen ari naiz? Noren aurrean, gainera. Bai kasualitatea nire hiriko bertako emakume bat auzoko bakarra izatea.

—Usteot bixok bakarrik gauzela edifizio osuan.

Berak ondotxo azaldu bezala gurea bezalako eraikinak uztailearen hasiera aldera betetzen hasi ohi dira. Ezta oso arrunta ordura arte inor hemen topatzea. Hau behin esanda, eta muzin

egitekotan ere egon arren, nahitaez eta nola edo hala xehetasunak eman beharrean nagoela uste dut.

—Nire agentziako nagusiak behartu ninduen oporrak uda baino lehen hartzera eta ez nuen norekin etorri, batez ere nire neska-lagunarekin apurtu eta gero.

Ezin ageriago andreari aurpegian antzeman berri diodan keinu urrikgarria. Auskalo zer asmatu duen. Zer edo zer asmatu behar izan baitu halabeharrez, neska-lagunarena aipatu eta gero esandakoa motz-motz geratzen zaiolakoan. Zorionez, biok ondotxo dakigu gaurkoz behintzat elkarri nahikotxo esan diogula, agian gizalegeak berak agintzen duena baino gehiago.

—Ni ostera gabonak pasata ixa urte osuan hamen bizi naiz. Ezinbestian, badakot oso gaixotasun larri bat birikietan izugarrizko mina eitten dostana, horrexegaittik pasaitten dot hamen ahal doten denbora gehixena medikuak aginduta. Baneukan be neskame moduko pertsona bat, geixenbat konpainia eittera etorten zana, baia egixa esan, neskatoak ikaragarri astoraketa ninduan haren txorakerixekin eta ensegida etxeti alde itteko eskau notzan. Oin bakarrik bizi naiz baina eztost bape ardura, etxequak gutxienez hiru astetik behin etorri ohi xaku bisita ittera. Ni, ostera, oso noizik behin bakarrik bueltaitten naiz Gasteiza, senarra eta alabakin egun gutxi batzuk familixa giruan pasaittearren. Zorionez, esan badotzut nire senarra laister etorriko dala udako oporretarako.

Oraingoan ditxosozko gizalegeak ni behartzen nau bere gaixotasunari buruzko berak eman nahi beste xehetasun galdetzera. Dena dela, ni ere, eta hainbat arinen ospa egiteko artegatasunak adieraz diezaiokeen modurik argienaz ere, ezinbestekoak bakar-bakarrik eskaintzen ari naiz. Badut susmoa, biok guztiz ezezagunak izanda, gehiegitxo mintzatu garela. Egutz geniezaioke, inoiz eta inola ondo nireganatu ez dudan erkidetasun delakoak erbestean gaudela eta gure herriko edonorekin topo egindakoan berarekin hitz eta pitz egitera bultzatzen gaituen zentzugabeko joera inozoari. Dena dela, oraingoan ageri da oraindik zimurrez eta oso lerdena eta batez ere jatorra eta berritsua ere den andre honek nirekin berbetan egitera bultzatu duena oso bestelako zerbait izan dela. Izan balitezke bakardadearen ajeak, batez ere hiritik hain aparte dagoen eraikin itsusi, hits eta etsigarri hau urte gehienez huts-hutsik dagoela erreparatuta. Ez dut, beraz, inola ere berarekin zakar, eskergaitz, jokatu gura, orain arte hain atsegina izan den nire oraingoaz auzoko bakarrarekin. Gainera, ezin dut bere moduko gaixo batekin horrela jokatu, ez naiz oraintxe bertan gogoan dudan neskato maitagarri eta errugabeko batek bete-betean sinestu behar duen bezain sasikumea.

—Tira ba, banau loguriak, bixar arte.

## II

Apartamentuko hozkailua leporaino utzi izan dudan barazki izoztuetariko batzuk afaldu eta segituan ohera joan naiz, eta aspalditik ez bezala bertan iraulka egon naiz justu-justu goizeko ordu txikietara arte.

—Irati Madinabeitia.

Ideiarik ez. Baina ziur nago Edurnek baietz, gure hiriko ikastolakume gehienak ezagun edo lagun baitzituen, saltsa guztietan sartuta zen aldetik, noski. Edurne abertzale sutsu-sutsua, konpromezu kontuetan bere mailara inor ailegutzen ez dena. Bera bezalako neska baten arreta erakartzeko lubaki berean egon behar zenuen ezinbestez, bestela ikusi ere ez zintuen egiten.

Edurne ez zen batere atsegina politika kontuetan aiko-maiko ibiltzen zirenekin, “urrats bat atzerago eta laster etsaiaren atzaparretan” esan ohi zuen. Eta jakina, nik garai hartan bederen harenetan bakarrik egon nahi nuen. Eta gainera, ezin diot nire memoriari iruzur egin, garai hartan ni ere Edurneren pentsamoldeen oso aldekoa nintzen-eta, Euskal Herri askatu eta sozialista bat gauzatu nahi eta agian ere gainontzekoen borondatearen gaintetik desiratzen nuen. Egun esan nezake ez zela batere harritzekoa ni ere borrokalari sutsua izatea nire orduko adiskide, ikaskide edo jolaskide giroan, denok nola edo hala geure buruak abertzale petopetotzat genituela, gure herria Espainiak zein Frantziak zapalduta zegoelakoan. Behartuta nengoen, beraz, Euskal Herri libre eta euskaldun baten alde borrokatzera, eta hori, zer esanik ez, inoiz aitortzeko gai izango naizena baino gogokoago, bihotzekoago, ezinbestekoagoa egiten zitzaidan. Egia esan, Euskal Herri libre baten aldeko borrokak nire gaztaroari nolabaiteko zentzu existentzial edota erromantiko bat eman zion, antza. Borroka honek nire bizitza zentzugabekoa zurrizteko aitzakia eta hauekin batera adiskide bilakatu ziren borrokaideak eman zizkidan, eta hau guztia gutxi balitz bezala, emaztea ere bai.

Baina Edurneren lagunaren artean ez zegoen Irati Madinabeitia, nire Torrevejako auzokide berri eta txit atseginaren alaba. Edurneren lagunaren artean baziren Iratxe, Ainhoa eta Paula, haren kohorte saihestezina, edonoiz eta edonora laguntzen zutenak. Edurnerenganaino apurtxo bat gerturatu eta berehala harresi moduko zerbait topatzen nuen euren lagunaren begiratuan: aizu, mutil, hemen soberan zaude. Eta zer esanik ez, banekien nik bide bakarra zela Edurnek eta bere kohortek aintzakotzat hartuta izate aldera: haiek hainbeste gorrotatzen zuten harresiren kontra buruz zein harriz oldarka ere egitea. Baina, hobe dut gezurretan edo gutxienez erdizkako egietan ez hastea, batez ere nire konpromezu kriminalaren ondorio zitala zurrizteko asmoz, delako harresia bazegoen alde zurrizteko nire buruan eta Edurneren onspena konpromezu horri atera nion atarramentu lotsagarri bat besterik ez zen izan.

(Harrezkero mota guztietako harresiak amiltzeko zin egin nion nire buruari)



Zoritxarrez, inoiz topatu nuen harresirik handiena nire buruan zegoena izan zen, bestelako harresi faltsu batzuen kontra oldartu ninduen, eta hori ere azkenean amildu egin zait, baina kostata, oso, esan liteke dena kasik bidean galdu egin dudala.

Baina orain libre nago, sei urteko kartzela zigorraldi amai- gabeko bat bete eta gero beste behin kalean, kale gorrian, nire orduko bizitzaren aurre-aurrian biluzik, hots, kartzelan sartu aurretik nire orduko bizitzari eusten zion mito zein gezurrezko oihalik gabe. Eta are biluziago, susmagarri, aspaldi izan nintzen abertzale sutsua ezagutu zutenen aurrean. Horrela sentitu nintzen Gasteiza bueltatu nintzen lehenengo egunean: ordura arte jantzitako trapu zital eta petral guzti-guztiak denboraren zakarrontzira bota eta gero larru gorritan. Nola azaldu gaur egun jantzi gura dudan soinekoak ez duela inolako zerikusirik nire orduko traputzar haiekin. Ziurraski ez zidan inor askok sinestuko, ETaren zentzugabeko borroka armatua goraiatzeagatik aurrenean gaitzestu eta atzenean saihestu ninduten lagun eta ezagunek ala iraultzaile guztiz leial eta adoretutzat nindukaten borrokaideek.

Lehenbizikoz ere hemen Torreviejan eta edonoiz azaltzen zaidan iraganaren zama astunaz libre sentitzen naiz, batez bere inori nire iraganaren berri ematerakoan; hain zuzen ere Lauraren aldamenen goxo-goxo egondakoan ere barrenak goitik behera zeharkatzen zizkidan erresumina; hau da, harekin halako naretasunean egoteko eta are gutxiago gozatzeko eskubiderik ez nuelakoan. Nolabait ere, zertaz eta batez ere nortaz ezkututzen naizen ondo baino hobeto baldin badakit, ez nago ordea oso ziur zertarako etorri naizen honaino, zer galdu zaidan Torrevieja bezalako herri zimel eta mamizko arimarik gabeko honetan. Asmoa zen Laurengandik zenbat eta urrunago egon, hau da, gero eta ziurrago berari, ni ikuste hutsaz ere, bigarrenez minik egitea ezinezkoa zitzaidakeelakoan, kaletik goazela ezustean elkarrekin topo egitekotan ez bada ere. Egiazko asmoa zen ere hemen behar besteko denbora oporretan pasatzea geure artekoa ahaztu arte, edo gutxienez berari egindako samina nolabait arindu zekion beta ematea. Ez zitzaidan Laurari egindako kaltea nola edo hala konpontzeko bestelako biderik burutu. Horrenbestez, eta egindako min osoa konpontzeko zeharo ezgauza naizen aldetik, denboraren eraginkortasunaz fio naiz; zertaz bestela, ondotoxo sumatzen baitut ni behin berriro ikusteak bakarrik eragin liezaiokeen oinazea.

Dena dela, eta hona etorri eta gero hirugarren egunaren goizeko lehenengo ordu txikiak direla- eta, eta hainbeste buru-hauste eta hauen kontura gogoeta egiteko denbora dexente izanda ere, ez dakit zertan eman dezakedan aurrean ditudan egun luze eta, batik bat bigarren egunetik hasi berri den uztail itsaskor hau aurrera doan neurrian, ikaragarri sargoritsua, orain arte bezala ez baldin bada potro-jorran ere. Izugarri aspertzen naiz sun, sand and sex ozta-ozta apeta dituzten udatiarrentzat propio antolatuta soilik ematen duen hiri honetan, hau da, oraindik erdi hutsik eta goizean eguzkiaz zein hondartzaz edota gauean pub eta hiri inguruko makrodiskoteketako martxa pastilloso kaskar eta agian ere zitalaz gozatzeko aukera bakarra ematen duen hiri hits eta ziztrin honetako apartamentu zulo batean. Jaiki berri naiz, bart lo

handirik egin ez badut ere, bi aurrenekoetan bezala gau osoan ohean iraulka eta izerdi patsetan, eta hondartzaraino, paseatzera bederen, urreratzeko goizegi denez gero La Torre del Moro behatokitara kotxez joatea erabaki dut eguneko lehenengo ordu ezko bakanak dastatze aldera. Bertan, kostaldea berberiskoen erasoetatik babestu eta hiriari bere izena eman zien dorreetariko baten gainean berriro gogoeta egiteari ekiten diot beti itsasora begira lasaigarri modura, nire barrenak itsas hertzera begira bakarrik lasaitzeko gauza naiz-eta.

—Ez naiz inoiz hain bakarrik eta atsekabeturik sentitu.

Ezin naiz sekula bakarragorik sentitu, ez eta kartzelan interno guztiengandik banatuta ere, batik bar nire ustezko borrokaideengandik, aparte eta beti kopeta ilun ala betozko egon ohi nintzela, egun osoan burutazioetan, iraganaren zama ikaragarri astunaz etengabe bueltaka, komandokoei euren objektiboari buruzko ezinbesteko informazioa eman izanak sei urteko — nahiz eta epaia berez hamarrekoa izan — zigorra egiatan merezi ote nueneko gogoetaz, garai hartan oraindik zilegizkoa begitantzen zitzaidan delako borroka armatuari emandako apurkak geroxeago gauzatu zen ekintzan nolako eta norainoko egiazko eragina ote zuen asmatu nahian. Harrezkero sei urte igaro dira eta harik eta gartzelatik irten eta bizimodu berri eta guztiz bestelakoa bilatu eta antolatzen lortu dudan arte, hau da, orduko giro eta lagunetatik ezin urrunago, gaur egun oraindik kartzela garaiko buruhaustek buruan pil-pil ditut, inoiz eta inola ere zartaginaren izerditzaren ez den bakailauren modura. Zorionez, iraganaren kontura behin eta berriro atsekabetzen ninduten oroitzapen ilunak aspaldi ere bizi guztirako izango direla onartzen ikasi egin badut. Ez naiz, beraz, nire iraganetik honaino ihesi etorri; ala hori da behintzat nire buruari behin eta berriro arrapostu egiten diodana.

(Laura ahaztu al duzu?)

Hori omen zen nire benetako asmoa osabari, eta agentzian doi-doi hiru hilabetez ihardun eta gero, oporrak emateko eskatu nioenean. Tamalez, hemen astebate eman badudala, ez nago oso seguru bebe-benetan eta batez ere erabat ahaztu nahi dudarik, gutxienez berarekin bizi izandako apurra, duda izpirik gabe sekula suertatu zaidan ederrena, samurrena, baliteke ere garbiena, egiazkoena. Izan ere, niri hiritik, gure hiritik, eta ia arrapaladan, ihesi egin baldin badut, bera ezustez edo ni ikusita gehiago sufri ez zedin izan da. Ezin bainion, ni benetan nor naizen asmatu orduko, sufrikario moduko zerbait baino ez zena eragin. Horregatik ospa egin dut paradisu turistiko baino gehiago basamortu begitantzen zaidan Mediterraneo kostaldeko hiri zarpail honetaraino.

—Banoa, banoa.

Atean joka ozen-ozen, erneguz. Bestaldean Mariasun nire auzo onaitiarra arnasa ezin hartuz. Faborez hiriko anbulatorioraino laguntzeko eta ez kezkatzeko ere, oso lantzean behin suertatzen zaion biriketako batek jota dago, bere gaixotasuna dela-eta. Kotxean arrapaladatsa

sartzen gara. Errepidean ordea mantsomantso badaezpada. Mariasunek hain larria ez dela gogoratzen dit berriz irrifarre izan nahi duen ahoko keinu makur batez. Gainera, aspaldi espero zuen, bere burua behar eta batez ere sendagileak agindu bezala zaindu ez duela aitortzen dit-eta. Dena dela, berriro ez kezkatzeko eskatzen dit ezin lasaigarri hobea izan nahi duen irribarre batez; gehienetan medizina hartu eta ohean etzan ohi da bizpahiru orduz gogorrena igaro arte. Bestalde, birikietakoa okerragora joan ezkerro badu Torre viejako sendagile baten telefono zenbakia halako larrialdietarako, gehien jota hamabost minutu apartamentuan azaldu baino lehen; itxaron diezaioke lasai-lasai. Oraingoan, ordea, ni ninduen anbulatorioraino laguntzeko pertsona bakarra, horrela ez du inor, inor arrotzik argitzen dit, aztoratu behar, ez baldin badaukat beste zereginik, noski. Bere ustez, eta beti ohikoari eutsita, orduerdi barru kale gorrira botako gaituzte. Beste zeregin garrantzitsuagorik gabe jarraitzekotan hiriko jatetxe dorore-dotore eta, noski, garesti-garesti batean —hiri alu honetan behar bezain ondo jateko aukera bakarra baita— afaltzera gonbidatuko nau esker onez.

—Gasteizen nauela alabiak beti Txagorritxuraino lagunketa nau.

Ezerengatik ere artega ez dadin eskatu behar diot etengabe, behintzat anbulatorioko errezeziara sartu garen arte. Ez dudala inolako eragozpenik arrats-gau osoa ere bertan aulki bati atxikita, logale eta guzti, igarotzeko; auzokideak gara, behin-behinekoak baina, elkarri laguntzeko behartuak baino gustatuagoak.

—Ikusiko dozu ze bapo-bapo afalduko dogun gero.

Errezezioko erizainari Osakidetzako txartela erakutsi eta hamaika argibide eman bitartean itxaron-gelara aulki bila noa. Espero bezala gela jendez gainezka dago, gehienak ni bezalako senitartekoak edo laguntzaile hutsak, zenbait gaixo familia osoak lagunduta etorri delakoan nago, oso familia handia, aitona-amonak barne, badaezpada edo. Gainera, itxaron-gela uste baino txikerragoa da, badirudi anbulatorio hau eraiki zutenean Torre vieja oraindik herri txikia zela, hots, turistikoa baina txikia, uda partean soilik ziplo eta batez ere ingelesez mukuruko kartzotzen zena. Gaur egun ordea herriko biztanlegoa bikoiztu edo hirukoiztu omen da, zer esanik ez oporraldietan, noizbait ere hamarkoiztu eta guzti egiten den. Ez da harritzekoa, hemengo urbanizazio hits eta itsusietara erretiratutako agure-atsoez gain herri honetako bihotz turistikoaren taupadei eusten dieten zerbitzari, garbitzaile, zaintzaile eta abar gehien-gehienak etorkinak baitira. Ikaragarria eta batez ere pozteko modukoa da Espainako jendilajearen itxura aldaketa, betidanik anitza izan baldin ez bada, gaur egun inoiz baino anitzagoa da eta horrek nolabait lasaitzen nau aniztasun horren parte izateko aparteko ahaleginik egin beharrean ez nagoen aldetik.

—Esan dostet mina inoiz baino gogorraua dala, benetan insoportabilia, baia kasuik ez, enfermeriak edo dana-dalakoak itxoiteko eta itxoiteko esan dostai, zapatu gaba izanda topera dauzela ni besteko gaixo dauen jente pilarekin.

Ni ere askotxo konbenzitzen lortzen ez duen “lasai, andere, laster kalean egongo gara” bat bota ahala gela erdiko mahaitxotik eskuragarri dagoen aldizkari bakarra hartu eta gainbegiratu arin bat eman diot nire hitzen moteltasunetik ihes nahian edo.

—Esan nostaín Mediterraneo aldeko eguraldixa nire birikietarako sendagarririk onena izango zala, baia sinistuta nau nire edadian birikiak hainbeste maspildu eta gero dagoeneko ez dakoila sendaittekorik.

Bat-batean behin-behineko auzoko dudan andere honek nire ama gogora ekarri dit. Beti aieneka, edozein ustezko huskeriagatik gainera. Edo hori zen behintzat betidanik uste izan dudana nire amaren deitoreen funtsezkoan erreparatzeko astia ere ez hartzearren.

—Iratik beti uste izan dau exajeraitten nebela, nire gaitza eztala hainbesterako, nire aldamenekuen arretia erakartzeko modu nahiko bihurri bat baino, esatia be komediantea eta guzti deiketa nostaíla!

Bere amaren gaixotasunaren nondik norakoak zehatz-mehatz ezin azaldurik, ezagun ez dudan Irati horri belarriondoko eder bat emateko gogoá sartu zait. Ezin dut eraman tamainako egoskorkeria, betidanik nire amarekin berarekin erabili dudana hain zuzen ere. Behingoan bai, behin betiko koskortu naizelakoan nago; aspaldi banengoen Irati hori bezalako astakirten bat izatetik gaurgero munduko Irati guztiak begitan hartzen dituen seme gaizto eta damutu bat izatera aldatua nintzela.

(Gaztea zarela zurekin zerikusirik ez duen guzti-guztia komeria hutsa begitantzen zaizu).

Jakina, familiak berak zuzeneko zerikusirik ez balu bezala ere, hau da, ea zertan sartua zaren galdetzen dizun ama atsekabetu hori, zurekin edozein huskeriagatik erresuminduta azaltzen zaizun aita odolgaiztoa, zure bizimodua, hau da, kalean potrojorran ematen duzun ordu pila edota printzipioz inola ere zu bezain abertzalea edo gutxienez konprometitua ez den baten begietara hain adierazgarria den janzkera hori dela medio uler ez zaitzakeen ahizpa.

—Gaztetan adiskideak senitartekoen gaineratik jartzeko joera izaten dugu, gaztetan arrotz egiten zaigun guztia etsai edo gutxienez kontrako bilakatzen dugu, eta gaztetan ez dago ezer arrotzagorik familia baino.

Orduan, eta itxarongelaraino lasai-lasai joateko agindutako erizain zeharo aspertu eta arduragabetuari guztiz kontrakoa begitandu zaion arren gero eta gogorragoa zitzaión minari muzin eginez Mariasunek begiratu harritu eta ilun bat bota egin dit. Ezin ageriago ez zuela espero halako aitorpenik orain dela astebate bakarrik ezagututako gazte batengandik, oso hitz gordinak omen dira adiskide bainoago eraikinkide bakarrik duen gizabanako baten ahotik.

Horregatik ere, eta gero eta gupidagabeago hausten duen gaitzari eutsiz, baliteke birikietako minari nolabait bizkarra emateko aukera ona izango delakoan, eta orain benetako ondoeza kezkarria nirea bakarrik balitz bezala, niri ezusteko berbajario nahasiari adi-adi egotea merezi duela sinistuta omen dago.

—Bada, halako momentu gogorretan benetan eta beti baldintza barik maite gaituztenak faltan ditugula, iraganean egindako oker guztiez damutzen garela...

Mariasun gaixoak, beharbada inoiz eta nik uste baino gaixoago, eta hitzik ezean irriparre xume bat baino ezin dit egin, zertaz ari naizen ezin asmatu, orain bai zeharo zorabiatutik.

—Badirudi seme-alaben beteheharra gurasoei huts egitea dela.

Egiazko mina gertukoei egindako kaltea, beraz, Mariasun bere alabatxoarena hainbestearino ez zela argitu beharrean.

—Okerrena, ordea, zure semeari huts egiten diozunean.

Lehen jendez gainezka zegoen itxarongela bat-batean hutsik balego bezala, aieneka zein txutxumutxuka ari zen jende multzoaren barbarorik ez Mari Asun eta bion belarrietan zehar.

—Badakitt nik ondo baino hobeto nire gaitzonek nolako neketia emun xau nire Irati gaixoai, baina...

Nola eutsi irriparreari halako kinka larrian ere?

—Ez, emakume, nitaz ari nintzen, nire umea koskortu orduko azaldu behar izango diodanaz. Ez dago galdera zorrotzagarik ondoan aho/begi zabalik duzunaren ixiltasuna baino.

—Esan behar izango diot zergatik espetxeratu ninduten.

Jakina, halakoan ez dut erantzunik espero alboan eta minzorrak jota dudan emakumearen partetik, berak badaki ondo baino hobeto halako eskubiderik ez dagokiola, batez ere orain dela bi aste bete bakarrik ezagunak garen partetik. Beraz, hiltzorian egonda ere ez luke ezergatik galduko diskretu jokatzeko ohitura, gure artean gizalegea ez baldin bada.

—Eztotzut egixa osua esan, ez dostet esan nire etxekoei be, haik badakixe nire birikiak eztabizela biar beste ondo, baia ez minbiziak jota daoze. Parkatuko dostazu gezurretan ibiltia?

### III

Gasteiza bueltatu nintzen, nik uste baino lehenago eta nire osabak areago. Izan ere, gizonak ezin sinestuta izugarrizko harrera ona eman zidan ea nire gauzak azkenean argitu nituen galdetutakoan lanean berehala hasteko aholkatuz, alajaina. Nik ez nuen ezer argiturik, ni itzuli nintzen Mariasun Torreviejako anbulatorioraino lagundu eta gero ezin bainuen bera berriro ikusteko paradarik izan; oso gaixo omen zegoen eta behaketapean jartzeko agindu zioten. Badirudi bere birikiak azkenetan zeudela minbiziak erabat hondatuak, Mediterraneo aldeko eguraldia ere nahikoa ez zitzaizela aurrera jarraitzeko, nola edo hala kras egitekotan omen zeudela. Familiakoa ez nintzenez gero aurreneko egunik larrietasan ezin nion bisitarik egin UVIkoan. Hala eta guztiz ere, egunero joaten nintzen erietxeraino galdezka, sekula ausartu ez bainintzen bertan ingresatu eta gero bi egunetara heldu ziren senitartekoengana hurbiltzen. Zer dela eta? Ez dakit nik ere oso ziur, baina nolabait ere uste izan nuen Mariasunena ez zegokidala, bere senitartekoen esku utzi behar nuela bakarbakarrik, beti hauengandik ahalik eta aparteetan eta bere egoeraren berriak zeharka eta puntuoro jasoz. Gainera, nola azaldu nire burua. Apartamentuko auzokide edo adiskide? Zer-nolako laguna, norainokoa? Edo zerbait are konprometituagoa, zer egiten zuen ni bezalako gazte batek kostaldeko hiri batean udaberri

—Nik gizon bat hiltzeko lagundu egin nuen. Garaian bakarka, zer arraio egiten zuen euren emazte edo amarekin harremanetan, zer nolakoetan? Paso egin nuen inori eman nahi ez nizekion azalpenak saihestearren. Tamalez, astebete eta gero informazio bulegokoek Mariasun bart zendu zela esan zidaten. Lur jota geratu nintzen, txunditurik, jakina, nola bestela. Eta gainera ezin nien nire dolumina eman orduantxe bere senitartekoei. Ez zen bidezkoa. Gasteizen eman behar, ezinbestez, horrexegatik bueltatu nintzen, ozta-ozta bere zerraldoaren lorratzaren atzetik.

Ez zen ere hileta eguna momenturik aproposena alferrikako azalpenak emateko, agian ez zegoen inoiz eta inori ezertaz eman beharrik, edo hori zen bederen nik uste izan nuena. Hala ere, hileta elizkUNETIK irtendakoan eta bere amak hitzez eta oso urrundik nolabait aurkeztua ezagun bakarria nuen alabarenganantz joan nintzen nire dolumina ematera. Zer esanik ez, ez nuen inolako gogorik nire burua aurkezteko; alde batetik, eta lehenago esan bezala, batere xehetasun zalea ez naizelako, eta bestalde ere halako kinka larrietan sufritzen ari den jendea zenbat eta gutxiago molestatu hobeberehaz delakoan nagoelako, batez ere eta tupustean ni ere negar zotinka ez hasteko hain hunkibera txotxoloa naizen aldetik, dolu giroak eraginda bada ere eta azken hau betiere koldarkeria mota bat baino ez dela kontuan hartuta. Nolabait ere, elizateko giza iladan jarri eta Mariasun zenaren senitartekoen pareraino iritsi nintzela negar-muxinka ari zen bere senarraren begitarte guztiz desitxuratu eta saminduari buru-keinu arin eta herabe bat egin eta alboan zegoen neskatoarenganantz zuzen-zuzen jo egin nuen nire dolumina hainbat arinen eta zintzoen agertzeko asmoz. Ohiko denez, dolumina agertu eta ordura arte pilatutako erreustasun guzti-guztia askatu egin zitzaidan. Egia esan, handik ospa

egiteko irrikitan nengoen, nire urtegi ondoko pisutxo madarikatuan lanera itzultzeko egunera arte ezkutatzeko asmotan. Baina, elizartetik dexente alde eginda nintzela nire atzean deika ari zen ahots batean erreparatu egin nuen bat-batean.

—Barkadaizu atrebentzia, zu al zara Diego? —bota egin zidan Iratik bere aurreasmoa egiaztatu nahian.

—Bai, ni naiz, zer ba? —erantzun egin nion aiko-maiko.

—Eskerrak eman nahi nizkizun etortzeagatik.

—Ez horregatik, neska, zure amarena bihotz-bihotzez sentitu egin dut.

—Badakit, berak kontatu egin zigun hiltzorian eta guzti zer-nolako sostengua eman zenion bere azken egunetan, zuri esker dena arinagoa egin zitzaion-eta.

—Arinagoa? —sostengu hitza izan bazen benetan txunditu egin ninduen, bere amari zertan arintzen lagundu egin nion galdetzera ausartu egin nintzen bakarrik, oraindik ez bainekien neska hura zehatz-mehatz zertaz ari zen.

—Badakizu, guk utzitako hutsunea nolabait bete eginez —erantzun zidan Iratik ordura arte nola edo hala, baina antza zenez baita gogor-gogor ere, eutsitako negarmuxinari berriro bide emanez—.

—Nik ez nekien ezer zure amaren gaitzaz, egia esan apenas ezagutu nuen, urbanizazioko auzoak ginen bakar-bakarrik —bota egin nuen supituan, inola ere merezi ez zuen neskato atsekabetu hari bekoskoa jarritz.

—Hori ere badakit, baina elkarrekin egon zineten egunotan nire ama oso ondo pasa egin zuen, zuri esker bere gaitzaren gora- beherak ordu bakan batzuez alde batera utzi ahal izan zituen —azaldu zidan Iratik bere musu gazte eta ederrean guztiz eskerronekoa izan nahi zuen irribarre luze eta ezti bat marrartzuz.

—Hori horrelakoa baldin bada izugarri pozten naiz, baina ez dakit ba nik gehiegizkoa den, esan badizut auzokoak bakarrik ginela... —tematu nintzen oso argi ez nekusan erantzukizunari muzin eginez.

—Baietz ba, gure amak asko estimatzen zintuen elkarren ezagun berri-berriak izan arren, oso tipo jator eta eskuzabala zinela esan zigun —Iratik bere irribarre zabalagoa egin zuen, baliteke nire jarrera eskertzearren itxurakeria apala besterik ez zelakoan.

—Zure ama oso pertsona berezia zen, oso emakume azkar eta gogoargia zen, azken egunera arte ez zidan tutik ere kontatu haren gaitzaz.

—Bai noski, erietxeraino lagundu zenuen egunera arte.

—Harrezkero ez nintzen zure amari bisita egitera ausartu, familia giroan bakarrik egon nahi zuelakoan —aprobetxatu egin nuen aspalditik buruan bueltaka ari zitzaidan aitzikia behingoz botatzeko.

—Jakina, ulertzen dut, ez zenuten apenas elkar ezagutzen... —ez dakit nik oraingoan bere irribarre finkoa adar jotzeko modukoa zen.

—Ospitalean bertan kontatu egin zidan... —ez zitzaidan besterik burutu.

—Elkarri kontatu zenizkioten zuen sekretuak —Zur eta lur utzi ninduen Iratik, ustekabeen zeharo harrapatuta.

—Nork ez du kontatze korik... —erantzuna ezustean ere asmatu eta agur moduko begi-keinu bat eskaini eta gero neskari bizkarra eman nion handik agudo-agudo eta behin betiko ospa egiteko asmoz.

—Edonola ere milesker behin berriro guztiagatik. —Baita zuri ere.



## IV

Bizpahiru bider hots egin diot gaur arratsaldean, lanetik irten bezain laster, berriro elkar ikusteko asmoz. Badirudi ezustean edo harrapatu dudala, ordenagailuaren aurrean potrojorran, berak aitortu bezala, eta pozik gainera, bera ere niri hots egiteko irrikan baitzegoen; egian esan, asteburu osoan nitaz gogoeta egiten egon da. Ederto ba, ez zen alokairuaren kontura inolako aitzakiarik asmatzeko beharrik. Alokairuarena bigarren maila batean geratu da berehala, tramite hutsa, baduzu azken asteotan esperoan zenuen kontratua, bihar bertan sartu ahal izango zara, baliteke eragozpen xume bat benetan gogoko genuenari begira; gu geu. Proposatuta egin dit hiri erdialdeko kafetegi batean gera gaitzen. Ez nuen espero, bada kalean geratuko garen lehengo aldia. Orain arte Alde Zaharreko pisuan edota nire urtegi ondoko etxean elkartu gara bakar-bakarrik, hau da, ezinbestekoa zitzaigun intimitatean eta batez ere geure auzokoen begi luzeetatik at. Duda-mudatan egon naiz lipar batez, ezetz esatekotan. Zertara dator orain kalean elkar ikustea? Badirudi nigandik babestu nahi zuela bere burua. Baliteke niri behin betiko agur esateko asmotan egotea eta horretarako leku neutral baten beharra, badaezpada bide okerretik hartu eta egundoko zezioa egiten diodan, nik, amodioa engainu hutsa zela aldarrikatzen zuen ustezko eszeptiko kaikua. Bat-batean zeharo goibeldu egin naiz, geure orain arteko topaketek omen zuten intimitate goxo eta ezaxolari uko egingo bagenio bezala zelakoan. Nabaritu ere, nik uste berak nabaritu egin didala agurtzekotan nengoen tonu etsia. Horregatik edo eskegi aurretik muxu handi eta bero-bero bat eman dit, ez dakit oraindik nire burutik uxatzeko zer-nolako zalantza.

Arratsaldeko zazpi eta erdiak pasa badira. Banago berak desiratutako arima gabeko kafetegi frankiziatu batean zain. Banago ere guztiz artega, ezinegonean, mundu osoa niri begira balego legez. Ez naiz nire hirira lan egitera bakarrik itzuli nintzenetik paseatzera irten. Ez nuen ezelako gogorik lanetik at, hau da, nire astian, txikitako kaleetan zehar ibiltzeko, hiriak jasotako aldaketak edota behin maitatu izan nituen txokoez berriro gozatzeko. Zertarako? Beldur nintzen gogoko ez nuen ezagunen batekin topo egiteaz, eta hiri alu honetan badut oso gogoko ez dudan antzeko jende andana, besteak beste, nik azken urteotan egindakoaz galdetzeko inolako lotsarik izango ez lukeen edonor. Gorroto diot nire buruaz berba egiteari, badirudi berriro lagun edo ezagun modura onartuta izateko nire iraganaren berri eman beharrean nagoela, nire burua nolabait zuritu behar dudala nire burua nik biziki gaitzesten dudan gizarte itsusi, itxi eta hits honen berriro parte sentitzearren. Beldurrak nago, beraz, Laura etorri bitartean aspaldiko lagun edo ezagunen bat azaltzen zaidan nire berri eskean. Badakit gizalegeei erantzunez zenbait zertzelada emango diodala nire azken urteotako nondik norakoez. Baina, jakin badakit ere laster aztoratuko naizela, lagun edo ezagun horrek beste lagun edota ezagun batzuei entzunda edo berak sumatzen duen zer edo zer entzun nahi izango duelakoan. Orduan, antzekorik gertatu ezker, espero ez nuen kuxkuxero mihiluze baten erruz nire iragana mahai gainean botata, nola esan ahal izango diodan Laurari larunbatean gertatutakoaz guztiz damututa nagoela, guztiz bihozgogorra izan nintzela, guztiz arduragabea

bere sentimenduekiko, ikaragarri hotza berak ohartarazi zidan bidegabekeriaren aurrean. Ez dit sinistuko. Are okerrago, nire barruan haren hitz zintzo eta gogorrezi muzin, edo agian burla ere, egiten ari nintzela uste izango du.

Zorionez, Laura atletik sartu berri da, baliteke inoiz baino pospolinagoa, badirudi lanetik antxintxika, ia arnasestuka, ilea doi-doi apainduta eta aurpegia zein ezpainak bere ohiko margo handiusteko eta koipetsu gabe, nik maiteen dudan bezala hain zuzen ere, haren edertasun gordin-gordina.

—Te he traido el contrato.

Eskertzen dit horren gustuko dudan irribarretxo goxo horrez, kontratuarena elkar topatzeko aitzakia hutsa zela egiaztatzen didan berbera.

Badirudi larunbatean zergatik hainbeste aztoratu zen azaldu nahi didala.

Eta bai, nabarmen da motibo franko bazuela Debako plazan ikusitakoagatik aztoratzeko. Nola esan ezetz udaletxeko balkoian eskegita agertzen ziren erretratatuaren kideek, edota agian aurrenekoetarikoren batek ere, haren aita akabatu zutela kontatu berri didalarik. Baina ez nau harritu, bere izen-abizenak kontratuan irakurri orduko sumatu egin dut, nahiz eta nire lankideari guztiz kontrakoa esan arren. Ez dago Ullaga asko geure hirian, badaude hamaika Ullaga ordea hegoaldeko Taborniga herrian, seguruenez bere aitaren sorterrria, baina hemen ez, eta dauden bakanak oso ezagunak izan ziren aspaldian, hau da, orain dela hogeitau urte inguru hil zuten Ullaga abizeneko politikari eskuindar hura.

(Nola ahaztu erailketa hura, orduko ETA politiko-militarreko kide askoren barrenak eta beste irauli baitzituen, Erakundeararen ekintzei zegokienez delako salto kualitatibo handia zen aldetik).

Azken urte luze ta latz hauetan egunerokotasuna mota askotako bidegabekeriez josita egonda ere, goizean jaiki eta irratia piztu bezain laster eguneko atentatuaren berri jaso arren, bortizkeria behin paisaiaren osagarri ezatsegin baina hala eta guztiz ere pairagarri bihurtu eta gero, badago nik sekula ezin ahaztuko nuen erailketa bat: José Miguel Ullaga Rámirez de Ocarizena.

—Nola ahaztuko nik neuk ere parte hartu egin baldin banuen!!

Garai hartan Erakundeak, eta zoritxarrez ez dago zein zehaztu beharrik, nontzerberri ninduen. Neure herriaren askapenaren alde lanean nengoela uste nuen, egia esan guztiz konbentziturik nengoen. Franko hil eta gero ezin argiago genuen erregimenaren kolaboratzaileek zein zaleek gure herriak berrogei urtetan jazotako zapalkuntza, bai lankidegoaren gainekoa zen nazio

mailan, gogotik pagatu behar zutela, areago, ezinbestekoa zen hauen kontra aritzea eraiki nahi genuen herri eta gizarte berriaren onerako. Guda garaian geunden, edo hori behintzat sinestarazi egin ziguten gure anaia handiek, benetako anaiak ez izanda ere halako azalpenak ematen zizkigutenak, eta gu haiek arestian jorratutako bide beretik joan beharrean geunden, gu ere geure herriaren ohorezkoak izango ginelakoan.

—Nola ahaztu nik eman nizkien datuek Ullaga jauna garbitzeko balio zietena?

Garai hartan bai, ezkerreko abertzale sutsu-sutsua nintzen, banituen ere nire zalantzak, batez ere noiz edo noiz eta halabeharrez iritsi behar zen independentziaren osteko gizarte horren antolakuntzari buruz; Albaniaren eredia guztiz gaitzesgarria begitantzen zitzaidan, eta behar bezala gogoeta egin eta gero zeharo beldurgarria ere bai. Hala ere, inola ere dudatan jartzen ez nuena Euskal Herria askatzeko eskubidea izan zen, beste batzuek Aljeria edo Irlanda askatzeko izan zuten bezala. Horregatik ezin argiago zegoen ere geure eskubidearen aurka zeudenak etsai genituela, eta jakina, nola edo hala garbitu behar genituela beraiek berrogei urtetan egin ere bezala.

Garai hartan nik mota askotako zentzugabekeriak zein sinplekeriak sinistu egin nituen, egia esan, gure herri txiki eta itxi honetan, edonon bezala ere, jende asko antzeko zentzugabekerien alde egon zen, eta gaur egun ere alde daudenak ez dira gutxi, horra hor sugearen azken hatsak, aurrenekoak bezain pozoitsuak badira ere, garai hartan nik egindakoari oraindik eusten diotenak ere bai: pistolariak behar beste informazio bildu euren lana albait arinen eta garbien bete dezaten.

Laurak bere aitari bonba ipini ziotenenganako gorroto ezin biziagoaz hitz egiten dit, baina bere aitak autoa non zuen eta goizetan zer ordutan hartu ohi zuen esan zion zelatariaz ahaztu egiten da, ez du ere gogoan hartzen, inork ez gintuen gogoan hartzen, kondenatu ninduten epaileek izan ezik.

Nik hiru hilabetez jarraitu egin nion Lauraren aitari egunero. Hala agindu zidan nire auzoko taldeburuak, edo hobeto esanda, nire auzoko Herrikoan denoi aginduak eman ohi zizkigun buruzagi handiuste edo harroputzak, auzoko abertzalerik sutsuena, hots, tabernako ahoberoena, bortitzena, kaikuena. Bada garaia organizazioaren alde zer edo zer egiteko, zor diogun konpromisuari eusteko, hala esan zidan argi eta garbi, ordura arte, hau da, hamaika sabotaje eta kale-iskanbilak egin eta gero, aiko-maiko izan bagina bezala bakar-bakarrik, ala gutxienez gure sakelako diruaz, egunero hamaika Keler zurrupatu eta noizik behin ere presoen aldeko itsulapikoan txanponen bat bota eta gero. Asteburuetakako kale borrokan parte hartzeaz eta batez ere hitzez behintzat aldeko nintzen erakundeari laguntzeko unea azkenean heldu balitzait bezala, urtetan, sikiera auzoko lagunekin bat etortzeko edo agian benetan sinistuta nengoela-eta, lau haizetara, eta batez ere nire auzokideen aurrean, hau da, auzoko abertzalerik sutsuen aurrean, etengabe aldarrika ari ginen abertzaletasunari eusteko parada ezin hobea.

—Bada garaia erakusteko noraino....

Ederto bada, ezin argiago hitz egiten zuen ikaragarritzko destainaz ere begiratzen zigun astapotro hark. Ez nuen luzaro hausnartu behar izan, banekien, edo gutxienez hala sumatu nuen, nire Erakundearekiko betebeharra ez zela hainbesterakoa izango, ez bainuen inola ere edozein ekileri eskatu ohi zaizkion baldintzak betetzen, batez ere konpromisoari zegozkionak, besteak beste nor bere bizitza kartzelan edo hil arte ere ematerainokoak, eta hau guztia gutarrei nahitaez eragingo nizkien atsekabea eta samina kontutan hartu barik. Bazen inola ere gainditu nahi ez nuen muga bat, hori zen nire baldintza bakarra orduko Erakundearen auzo-buruzagiaren aginduei men egiteko, ahaide nagusiei ahal izango zitzaidan neurrian lagunduko nien euren ekintzak gauzatzearren, informazio lanetan edota agian auzoko logistika moduko zertxobait eraikitzeke ere bai. Baina besterik ez, ez nuen inolako asmorik nire etorkizuna arriskutan jartzeko, eta ez naiz ari kartzelaz, erbesteaz edo dena delakoaz, burutzear nengoen kazetaritza ikasketez baino, kazetari izan nuen-eta.

—Ez dut uste ariketa hobeagorik topatuko duzunik zure curriculum hori osatzeko...

Ez ninduen konbentzitu, are gutxiago barrerik eragin. Hala eta guztiz ere, aspaldi hitza emana nuen, aspalditik nire auzoko Herrikoekin harremanetan bainenbilen, eta aspalditik ere konbentziturik nengoen nola edo hala nire aberria askatzeko ezinbesteko harri koskorra bidera ekarri beharrean nengoela.

—Zorionez badaude oraindik euren odola Euskal Herriaren alde emateko gertu dauden beste batzuk.

Guztiz hobeto nire moduko koldar edo egoista guztiontzat, nire aldetik behintzat euren alde egongo nintzen betiere, behar beste ekitaldi edo diru-bilketetan parte hartuko nuen, presoen aldeko manifa guztietan azalduko nintzen, bai hemen zein Sebastopolen. Azken buruan ni ere abertzale sutsu-sutsua nintzen, sutsuetan sutsua izateko asmotan ere, Euskal Herri askatu edo sozialista bat gogoz eta bihotzez gutiziatzen nuena, baina inola ere nire odola emateko gertu ez zegoena, ezta pentsatu ere. Hori bai, gainontzekoena behar adina. Ni haietako bat nintzen, neure auzoko Herriko Tabernako kideetariko bat bederen.

—Zer egin behar dut?

Lauraren aitaren izen-abizenak eman zizkidan.

—UCDren zinegotzi ezagun bat, geure herriak jasaten duen zapalkuntzaren aldeko faxista zikin bat.

Ez nuen besterik jakin behar, haiek erabakitako nire aberriaren etsai ezin aluago baten aurrean nengoen. Erakundeak, hau da, nire auzoko ordezkariak emandako aginduari men eginez zinegotzi haren atzetik gauzez eta egunez jarraika egon behar nuen bere ohitura zein ordutegi guzti-guztiak ahalik eta zehatzen jasotzearen.

—Gurea bezalako hain hiri txiki batean ez dut uste arazo handirik izango dudarik. Astebete barru ezinbesteko datu guzti-guztiak izango dituzue txerrikume alu horri eskarmentu on bat eman diezaiozuen.